

HAZTEN

E K O N O M I A G I D A

Lea-Artibai
eta Mutriku

[2024/10]

DATU MAPA 4-5

LEA-ARTIBAI FUNDAZIOA. 6-7

LEA IBARRA 8-9

LEARGI. 10-11

KIDE. 12-13

BERRIATUKO UDALA. 14-15

CIKAUTOXO 16-17

MERKATARITZA 18

ITSASOA 19

LANDA 19

EUSKARA AEK 18

ONDARROAKO UDALA 20-21

LEA-ARTIBAI IKASTETXEA 22-23

LEKEITIOKO UDALA 24-25

ETXEBARRIKO UDALA 26-27

MUTRIKUKO UDALA 28-29

KOOPERATIBA MAHAIA 30

LEARTIKER 31

HITZA 32

HAZTEN

E K O N O M I A G I D A

Argitaratzailea: Lea-Artibaialdeko Hedabideak

Helbidea:

Markina-Xemein

Arretxinaga kalea 1

tel.: 94-684 44 36 • lh@hitza.eus

Gernika-Lumo

Elbira Iturri kalea z/g

tel.: 94-627 10 85 • busturialdea@hitza.eus

www.lea-artibaietamutriku.hitza.eus

www.busturialdea.hitza.eus



Publizitatea: **HITZA**

Diseinua, maketazioa eta testuak: **11barri**

Azaleko argazkia: Leartibai Fundazioa.

Argazkiak: Leartibai Fundazioa, Lea Ibarreko Udal Mankomunazgoa, Leargi, Kide, Berriatuako Udala, Cikautxo, Zatozte Merkatarik Elkartea, AEK, Landa Garapena, Ondarroako Udala, Lea-Artibai ikastetxea, Lekeitioko Udala, Julen Etxabe Odriozola, Gorka Ezenarro Arrate, Etxebarriako Udala, Mutrikuko Udala, Kooperatiben mahaia, Lore Bengoetxea Ibazeta, HITZA eta Unsplash.

lea-artibaietamutriku.hitza.eus



EKONOMIA EHUNTZEN

Ekonomia da herritarren kezka iturri nagusienetakoa azken urteetako inkestetan jasotzen denez, ongizateagaz, eta, hortaz, asetasunagaz lotuta dagoen heinean. Norbanakoengandik hara- tago, gizarteko beste hainbat segmentuk ere bere egiten dute ardura bera, eta euren ahale- gina, ezagutza eta esfortzua ekonomia indar- tsu bat erdiestera bideratzen. Horren haritik, udalak, enpresa sareak, toki garapenerako era- kundeak eta ekonomia ehuna osatzen duten beste hainbat eragile etorkizunera begirako adierazleak aztertu eta jarraitu beharreko il- doak taxutzen ari dira, bide partekatuan.

HITZA eskualdean esparru guztietan ematen diren urratsen lekuko eta bozgorailu da, belarri eta aho. Lehen bezala, orain; eta orain bezala, bihar. Bera ere badelako ehuntze horren parte. Horregatik, ekonomiaren inguru- koak bildu ditugu oraingoan, irakurle, gehiga- rri berezian, haren gakoak ulertzen lagundu zaitzan.

www.fideslan.com

Fideslan

Negozio
kontsultoria eta
aholkularitza

Antiguako Ama, 11 ONDARROA • Tel.: 94-683 32 08
DONOSTIA • Tel.: 943-429 609 • fideslan@fideslan.com

INDUSTRIA

LEA-ARTIBAIN

200

INDUSTRI ENPRESA INGURU,
GEHIENGOAK ENPRESA
TXIKI ETA ERTAINAK.

%34

ENPLEGU GUZTIAREN
%34 INDUSTRIAN.

%31

SORTZEN DEN BALIO
ERANTSI GORDINAREN
%31 INDUSTRIATIK DATOR.



MUTRIKUN

18

INDUSTRI ENPRESA.
GEHIENGOAK ENPRESA
TXIKI ETA ERTAINAK.

%30

ENPLEGU GUZTIAREN
%30 INDUSTRIAN.
ITURRIA: mutriku.eus

LEA-ARTIBAIKO INDUSTRIARIK BEHARKODITUEN PERTSONEN PROFILA *

Lanbide Heziketa
Mekatronika
Automatizazioa
Robotika
Mantentze-lanak
Mekanizazioa
Elektronika
Hotzeko ezagutzak
Galdaragintza
Mekanika
Iturginak, arotzak
Argiketariak
Muntatzailea

Unibertsitate ikasketak:

Ingeniaritza elektronikoa
Ingeniaritza mekanikoa
Diseinuko ingeniari-tza
Informatikako ingeniari-tza
Prozesuetako ingeniari-tza
Ingeniaritza industrial
Administrazioa eta
zuzenbidea
Antolaketa ingeniari-tza
Komunikazio ingeniari-tza
Arkitektoak
Ikerlariak
Laborategietako teknikariak
Albaitariak

* ITURRIA: Leartibai Fundazioa. 2022ko udazkeneko datuak. Elkarriketatutako enpresak: 20. Horien artean, enpresa bultzatzaileak, enpresa txiki eta ertai-



INDARTSUENAK:
AUTOMOZIOA, METAL MEKANIKOA ETA EKIPAMENDUEN INDUSTRIA.


ONDORIO KUALITATIBOAK

- Talentuaren gestioa, etengabe berritzen ari den alorra.
- Ezagutzaren kudeaketa da gakoa.
- Enpresa bultzatzaileetan jubilazio kopuru handia.
- Enpresa txiki eta ertaintan oinardezkotza prozesuak.
- Enpresa industrialetan lan egiten duten pertsonen %42 eskualdez kanpokoa da.




LANGABEZIA ETA ERRENTA PERTSONALA

LANGABEZIA TASA 2024ko irailean



ITURRIA:
Berria eta Garapen
Agentzien Euskal Elkarte

BATAZ BESTEKO ERRENTA PERTSONAL OSOA



ITURRIA: Eustat.

MERKATARITZA



285

LEA-ARTIBAIN

MERKATARITZA
ESTABLEZIMENDU.

ITURRIA: Eustat.

3

MERKATARITZA
ELKARTE.

77

MUTRIKUN

MERKATARITZA
ESTABLEZIMENDU.

ITURRIA: mutrikueus

1

BERTAN
MERKATARI
ELKARTEA.



DATU ESANGURATSUAK

DEMOGRAFIA

Erroldatutako biztanleria 2023an
Lea-Artibain: 25.637 lagun
Debabarrean: 71.843 lagun

ATZERRITARRAK 2023an

Lea-Artibain: %8,4
Debabarrean: %9,3

ZAHARTZE ADIERAZLEAK

[65 urtetik gorakoak] 2023an
Lea-Artibain: %25,4
Debabarrean: %25

GIZARTE

SEGURANTZAKO AFILIAZIOAK

16-64 urte bitartean
2024ko abuztuan
Lea-Artibain: %48,2
Debabarrean: %56,2

AUTONOMOAK, LANGILE GUZTIETATIK

2024ko abuztuan
Lea-Artibain: %28,8
Debabarrean: %18

ITURRIA:
Garapen
Agentzien
Euskal Elkartea



GOIZMEK, S.L.

MEKANIZATUAK

okamika industrialdea, 3A • GIZABURUAGA

Tf. / Faxa: **94-684 14 13**
goizmek@goizmek.com


 A woman with dark hair, wearing a white textured jacket, blue jeans, and orange sandals, is sitting on a red stool. Behind her is a glass wall with the 'Leartibai Fundazioak' logo, which features a stylized speech bubble shape. To the right, there is a decorative arrangement of dried branches and flowers.

Leartibai
Fundazioak

AINHOA ARRIZUBIETA ZABALA | LEARTIBAI FUNDAZIOAREN ZUZENDARIA

«JARDUERA EKONOMIKOA ETA KALITATEZKO LANA BULTZATU, EUTSI ETA SUSTATU NAHI DITUGU»

Enpresa sarea berritzea helburu nagusi izanik, Leartibai Fundazioak erronka garrantzitsuak dauzka esku artean: enpresen oinordekotza bermatzea, trantsizio teknologiko-digital eta energetiko-klimatikoan laguntzea eta talentua bertaratzea. Azken batean, sektore guztietako enpresen lehiakortasunaren hobekuntzan bidelagun izatea.

Fundazioaren erronkei erantzuteko, gobernantza ereduari oinarritzen zarete. Zela-koa da Gobernantza?

Leartibai Fundazioa eskualde honen garapen ekonomikoaren alde lanean dabiltzan erakunde publiko eta pribatuaren bilgunea da. Fundazioaren muina patronatua da, eta hauek dira bertako kideak: eskualdeko hamabi udalak, Lea Artibai Ikastetxea, Leartiker zentro teknologikoa, Lea-Artibaiko

Bizkaiko sortaldeko industrialdea, Kooperatiben Mahaia eta Landa Garapen Alkartea. Interes guztiak lerrotatuta elkarlanean dihardugu. Lankidetzara publiko-pribatuaren formula da gurea.

Zeintzuk dira zuen lan ildorik eta garrantzitsuenak?

Orain dela bi urte eskualde mailako garapen ekonomikorako plangintza estrategikoa egin genuen 2030era begira, eta bost proiektu traktore definitu genituen, hauek: NEBTak eta materialen inguruko berrikuntza irekia —eskualean arlo honetan dugun ezagutzatik abiatuz aktibitate ekonomiko berriak bultzatzeko ekosistema egokibat sortzea da helburua—; Hazkunde urdina —itsasoak eta bere inguruak sor ditzakeen negozio aukeren identifikazioan gabilta—; Turismo jasangarria —bisitari eta bertoko biztanleen arteko oreka bilatzen duen turismo eredu definitu eta sustatu nahian—; Talentua garatu eta aberastu —alegia, eskualdea talentu gaztearentzat erakargarri egitea—, eta Azpiegiturak eta oinarritzko gaitasunak optimizatu eta sustatzeko plan bateratua —industriaren lehiakortasun edo/eta hazkunderako muga diren azpiegiturak identifikatu eta lehenes-

teko—. Horretarako, eskualdeko eta eskualdez gairako eragile eta instituzioekin dihardugu.

Zein da industriaren pisua Lea-Artibain?

200 industri enpresa inguru dauzkagu gure eskualdean, gehienak txikiak eta ertainak. Lea-Artibaiko enplegu guztiaren %34 industriari dago, eta sortzen den balio erantsi gordinaren %31 ere handik dator. Datu hauek ikusirik eskualde industrialarekin esan dezakegu.

Zeintzuk dira industria sektorearen erronkak eta zelan erantzuten zaio horri?

Bertoko industria enpresek digitalizazioa, jasangarritasuna, trantsizio energetikoa, eta talentuaren erakartzea eta mantenua dituzte erronka nagusi. Bizkaiko Foru Aldundiaren Lurralde Lehiakortasun programa eta Spiren Hazinnova programa dira fundazioaren tresna nagusiak enprekin arlo hauetan guztietan lan egiteko. Urtean 25 enpresa baino gehiagok lan egiten dugu. Horrez gain, enpresei beraien proiektuak garatzeko diru laguntza eskariak kudeatzea ere bada gure egin-beharra. 2023an, adibidez, 300.000 €tik gora lortu ziren eskualdeko enpresa txiki eta ertainentzat.

“ Bost proiektu traktore definitu dira, eta haiek garatzen dihardugu eragileekin batera

2024ko iraileko datuak begiratu, Lea Artibai eskualdeko langabezi tasa %6,8koa da. Ze irakurketa egiten duzue?

Bizkaiko eskualde guztietako langabezi tasa baxuena da. Hain zuzen, Bizkaiko langabezi tasa %8koa da eta EAEkoa %9,8. Eta azken urteetan batzbesteko errenta pertsonal osoan ere igoera izan dugu. Atera kontuak: EAE eta Bizkaiko zenbakiak gainditu ditugu. Datuak hor daude: EAEn 23.313 eurokoa da, Bizkaian 22.944 euro eta Lea-Artibain 23.935 euro.

Hala eta ere, langabeziari ere adi zaudete.

Izan ere, kementsu dihardugu langabezia daudenei lanbideak bultzatutako hainbat programan bidez enplegarritasunean laguntzeko proiektuak martxan jartzen, horien artean urtean egiten ditugun 6 hilabeterako 19 langabetuentzako kontratuak, esperientzia eta formazioa jasoz laneratzera errazteko.

Adituek errelebo beharra aipatzen dute. Ze urrats eman dira horren inguruan?

Industrian profil teknikodun langileen beharra ikusten da, batez ere ingeniariak edo eta formazio profesionaleko ikasketa teknikoak dituztenak; STEM ikasketadun profilak beharko dira gehienbat; baina gero eta larriagoa da lanpostu tradizionaletan dagoen errelebo beharra ere, merkataritza eta eraikuntzagaz lotutako eskuzko lanbideetan, besteak beste. Egoera latz horri aurre egiteko, Lea Artibai ikastetxeagaz batera eskualdean Talentuaren estrategia definitu da, epe luzera begirako estrategia, Kooperatiben Mahaia babestuta, gure gaztetxoekin lantzen hasiak garena Talentatu programaren bidez eta ikastetxe eta enprekin erronka konpartituz lantzen gabiltzana.

Zelan bultzatu nahi da merkatarien lehiakortasuna?

Eskualdean 285 merkataritza establezimendutik gora daukazgu, eta hiru merkatarik elkarrekin, eta beraien lehiakortasuna hobetzeko, hainbat zerbitzu eskaintzen ditugu, horietako batzuk fundazioetik zuzenean eta beste batzuk Merkataritza Ganbaragaz elkarlanean. Momentu honetan 43 establezimendu parte hartzen ari dira hainbat programatan. Arlo horretako erronka nagusiak hauek dira: tokian tokiko erosketak bultzatzea, digitalizazioaren bidez eskari mota berrietara egokitzea eta jubilazioak hurbil dituzten establezimenduei jarraipena ematea.

Ekintzailtza bultzatzea ere hartuta duzue egitekotzat. Ze erataria?

Urtean 70 ekintzailetik gora hurbiltzen dira Leartibai Fundazioak eskaintzen duen Sortu zure enpresa pausoz pauso deituriko zerbitzua jasotzera. Eskualdean enpresa bat sortu nahi duen orori ematen zaion zerbitzua da, enpresa ideia definitu, garatu eta martxan jartzeko banakako tutoriazioa eskainiz. Hurbiltzen direnetik erdiak inguruk sortzen dute enpresa bat. Negozio txikiak dira,

gehienetan autoenpleguak; eta asko, negozio esku aldatzeak. Urtero 45-50 bat lanpostu sortzen dira autoenpleguaren bidez.

Horrez gain, Markina-Xemeingo Berrikuntza gunean kokatzeko aukera ere badute. Ze topatzen dute han hasi berriek?

Enpresa haztegia dugu hemen. Bai bulegoak bai pabilioiak ekintzaileen esku jartzen dira lehenengo urteetan beraien merkaturatzea errazteko asmoz. Jardunaldiak, lan-saioak eta ekintzaile sarean parte hartzea dira eskaintzen diren gainerako zerbitzuak.

Turismoa ere bada zuen lan ildo bat. Gero eta pisu handiagoa dauka Lea-Artibain.

Datuek horrela erakusten dute. Haien arabera, 2023an Lea-Artibain 29.594 sarrera izan genituen, aurreko urtean baino %2 gehiago, horietatik 17.371 estatu mailakoak eta 12.223 atzerritarak. Adierazgarria da aurreko urteagaz alderatuta atzerritarren kopurua %14,31 igo zela.

Zeintzuk dira hango erronkak?

Lea-Artibai eskualdeko turismo jasangarriaren estrategia erronka nagusiak udako estazionalitatea leuntzea eta kostaldere datozen turista fluxuak eskualdean barrena zabaltzea dira. Horretarako produktu nagusiak gastronomian, naturan eta gure ondare eta nortasunean oinarritzen dira. Systour proiektu europarrak Europako beste landa eremu batzuetan ere turismoa era jasangarrian nola kudeatzen dauden ikusi eta ikasteko aukera ematen digu gero praktika onak gurean aplikatzeko.

Ostatuak ere strategiaren baitan txertatzen dituzue.

34 ostatu ditugu eskualdean, eta turismo aktiboko enpresak eta jatetxeak ere sektore honetako parte garrantzitsu dira. Bestalde, ostalaritza sektorea turismoagaz batera kudeatzen dugu, eta horien lehiakortasuna bultzatzeko programak eskaintzen ditugu. Momentuan turismo sektoreko 26 enprekin gabilta lanean.

Ze mailako kooperazioa lortu duzue Europa mailan?

Europako funtsak eskualdera ekartzea ere helburu dugu. Horren adierazgarri dira epealdi honetan

fundazioetik lortu ditugun hiru proiektu europarrak: Fishinn, Systour eta Sirenergy. Azken proiektuak energia berriztagarrien proiektuetan onarpen soziala eta biztanleriaren partaidetza bultzatzeko ereduak ikusteko aukera ematen digu.

Zelan uzartu dituzue indarrak etxean?

Gure eguneroko lana eskualdeko eragileekin estrategia konpartituak definitu, finantzazioa lortu eta proiektuak garatzea da, eskualde honen ongizate maila hobetze aldera. Hau guztia lortzea asko errazten du eskualdeko gobernantza publiko-pribatuak eta gobernantza horren atzean dauden banakako pertsona guztiak. Izan ere, nahiz eta batzuetan ikuspuntu ezberdinak eduki, azken helburu bera daukagu guztiok: Lea-Artibai hobea lortzea.



Talentatu programaren baitako ekimena.



Ekintzailtzako proiektu sarituak.



Azpiegitura beharizanen hausnarketa.



LEARTIBAI
FUNDAZIOA
leartibaifundazioa.eus





Garapen iraunkorrera begira jartzeko indarrez

LEA IBARREAN INGURUMENA ZAINTEKO APUSTUA BERE EGIN DUTE, ETA HORRI BEGIRA HAINBAT PROIEKTU ABIAN JARRI.

Gizarte bezala, ingurumenari dagokionez erronka global eta konplexuak bizitzen ari gara. Horrez gain, metropolietatik urrun samar gauden lekuetan, Lea Ibarren kasuan esaterako, despopulazioa ere elementu azpimarragarria da, bizilagunen egunerokotasuna baldintzatzen duena. Hala ere, tokiko berezitasunak modu egokian aprobetxatzen dituzten proiektu eta ekimenak sortzen eta nabamentzen ari dira etengabe.

Testuinguru orokorrean, aipagarria da erregai fosilekiko daukagun menpekotasuna; kontsumitzen dugun energia horretan oinarrituta baitago, batez ere, gasean eta petrolioan. Ezin uka daiteke munduko gerren eta gatazka geopolitikoaren iturri nagusietako bat ere badela. Horrela jarraituta,

klima-krisia eta energiaren prezioaren ondoriozko gizarte-krisia erabatekoak izango dira.

Hori gutxi balitz, zerbitzuak metropolietan kontzentratzeak inguruan dauden herri txikietan despopulazioa eragiten jarraitzen du, aurreko mendean hartu zuen joerari jarraituz.

Aurrez aurre ditugun erronken nolakotasunaz ohartuta, Europar Komisioko "European Green Deal" moduan ezagutzen den ituna abiarazi zuen, 2050 urterako Europa klimatikoki neutroa izan dadin. Eusko Jaurlaritzak ere norabide horretan 1/2024 legea [Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren legea] onartu zuen urte-hasieran [legearen helburu nagusia 2050rako EAEn karbono emisioak zerora murriztea da eta energia berriztagarrien aldeko apustua].

Deskarbonizazioak hurrengo hamarkadetako garapen ekonomikorako estrategiaren oinarria izan beharko du, eta bertatik eratortzen diren politika eta zuzentzaruek aldaketa sakonak eragingo dituzte produzitzeko, kontsumitzeko eta bizitzeko moduetan.

Berezitasunak era egokian probesteko egitasmoak sortzen ari dira

Horren aurrean, Lea Ibarren bezala despopulazioa pairatzen dugun lekuetan, ingurumenagaz orekan dagoen bizimodua proposatu eta eraikitzeko aukera daukagu, bizitzeko eremu jasagarri eta erakargarri bat sortuz, aurrera eramaten diren ekintzen ekonomia, ingurumen eta genero-dimentsioak kontuan izanda.

Horretarako, norabide horretan pausoak ematen hasi eta jarraitu behar dugu. Legez, Hondakinen kudeaketan helburuak jarrita daude, baina, aldi berean, beste alorrak ere garatzea ezinbestekoa da.

Trantsizio ekosozialean pausoak

Bailarako bizimodua indartzeko helburuagaz, garapen iraunkorrean oinarrituta, Lea Ibarra Mankomunitatearen bitartez [Munitibar, Aulesti, Gizaburuaga, Amoroto eta Mendexa], Trantsizio Ekosozialean pausoak emateko asmoa daukagu, aurreroko legealdietan martxan jarritako elementuak ahalaztu barik. Ahal dugun guztian natur baliabideen erabilera orekatua lortu nahi dugu, bizitzaren iraunkortasuna lehentasun gisa ezarriz.

Ido horretan, Lea Ibarren herri guztietan idatzita edo idatzi bidean dira klima aldaketa arintzeko eta horretarako egokitzeko plan integratuak. Dokumentu horietan kontsumo eta isuriak kuantifikatuta azaltzen dira. Lea Ibarren, herri bakoitzetik hasita, baina era koordinatuan, egin behar dugu klima-aldaketaren arriskueta egokitzeko eta horretarako planen jarraipena egiteko lanketa [ekintzen eragina baloratu, inbentarioak eguneratu eta ekintzen egoera zehaztu]. Hori horrela, helburu horiek lortzeko hainbat pauso eman dira, eta bide horretan jarraitzeko hainbat proiektu bultzatu ditu mankomunitateak.

Hasteko, 2014tik Munitibarko Bengolan eraikita daukagu Bengola Natur Energia Interpretazio Zentroa. Europako funtsez finantzatu zen zentroa, tokiko kultura eta ingurumenean oinarrituta turismoa bultzatzeko. Hala ere, gaur egun zentroa zarratuta dago.

Zentroa martxan ipintzea elementu interesgarria izango da garapen iraunkorraren zabalkunde pedagogikorako; Bengolan kontzeptu hori interpretatzeko elementu bezala txertatu da, energia berriztagarriak garatzeko testuingurua emanda. Horregatik, bertako erabileraren eta erakusketaren inguruko barne lanketa betean gaude, eraikina biziberritu eta Bengola Natur Energia Interpretazio Zentroa aukera interesgarri bilakatzeko, bisitatu, instalazioak erabili eta ingurumenagaz go-

zatzeko eta energia berriztagarrien berrikuntzen alorrean garrantzitsua izan dadin.

Birziklatze tasa hobetzeko neurriak

Bestalde, 2017an jarri zen martxan egungo hondakinen kudeaketarako sistema, eta ia ezer ez birziklatzetik %50 inguru birziklatzera pasatu gara ordutik. Alde batetik, ordura arte, sakabanatuta zeuden edukiontzia guneetan batu ziren, eta gune guztietan hondakinen frakzio guztiak banatuta jasotzeko aukera martxan ipini zen. Hala ere, behartuta gaude beste pauso bat gehiago ematera, eta %75eko birziklatze-tasara eramango gaituen lanketa egiteko asmoa daukagu.

Lanketa berriagaz, gaur egungo egoera zehaztu eta egin beharreko aldaketak edo doikuntzak gauzatzeko asmoa daukagu [hondakinen batzeari jarraipena egitea eta baliabideak optimizatzea].

Legeak, gainera, derrigortu egiten gaitu hondakinen tasak arautzen dituen udal ordenantzak eguneratzera: hondakinen kudeaketak daukan kostua osorik ezarritako tasaren bitartez ordaindu beharko baita, ez orain arte bezala, udalak horretarako diru bat ipinita. Beste era batera esanda, erabiltzaile bakoitzak eragiten dituen hondakinen tratamenduak sortutako kostua ordaindu beharko du.

Hori horrela, lanean gabilta ahalik eta arinen legeak agindutakoa betetzeko eta hondakinen kudeaketa arrakastaz gauzatzeko, europar erakundeetan erabakitako norabidean. Horretarako, ezinbestekoa izango da herritar guztien partaidetza eta ekarpena.

Lea Ibilbidea garatzeko helburua

Aipatutako proiektu eta neurriez gain, 2022an Lea Ibarreko Mankomunazgoak Eusko Jaurlaritzagaz hitzarmena sinatu zuen Lea Ibilbidea garatzeko, Euskadiko Helmugetako Turismo Jasagarritasuneko Lurralde Planaren barruan, Covid osteko Susperitze, Transformazioa eta Erresilientzia Planaren eremuan eta Next GenerationEU- Europar Batasuneko funtsen kargura.

Horren bitartez, mankomunazgoak Lea ibilbidea lau arlotan garatzeko plana prestatu zuen, eta zortzi jarduketara zehatz planteatu ziren. Trantsizio berde eta sostengarria lantzeko, egitasmo hauek proposatu ziren: Munitibarko Bengolan errota andapara bainurako egokitzzea, Aulestiko Hiruzubi parkea aisialdirako egokitzzea eta Munitibarko Motrollu mendia aisialdirako egokitzzea. Efizientzia energetikoa lantzeko proposatu zirenak, aldiz,

beste hauek izan ziren: ibilbideko pasarelak konponetzea eta Munitibarko Bengolan ortu fotovoltaikoa jartzea. Trantsizio digitalaren arloan, beste hauek proposatu ziren: ibilbidea digitalizatzea eta Bengolako edukiak digitalizatzea; eta, azkenik, ibararren lehiakortasun turistikoa hobetzeko, beste proposamen hau egin zen: Gizaburuagako Bengolea burdindegiko aztarnak erosi eta birgaitzea.

Gaur egun, egitasmo bakoitzaren egoera desberdina da. Hala ere, 2025. urtea bukatu orduko amaituta egotea da asmoa. Munitibarko Bengolako errota andapara bainurako egokituta dago, Aulestiko Hiruzubi parkea aisialdirako egokituta dago eta Gizaburuagako Bengolea burdindegia erositako dago; horrez gain, Munitibarko Motrollu mendia aisialdirako egokitzeko lanak aginduta daude; eta, azkenik, lizitazio prozesuak hasita daukagu Lea ibilbidea eta Bengola digitalizatzeko.

Bukatzeko, ezin dugu aipatu gabe utzi 2022an Lea Ibarreko herritarrek Leargi kooperatiba eratu zutela, zeina kontsumo eta zerbitzu kooperatiba den, irabazi asmorik gabekoa. Bere estatutuen arabera, kooperatibaren xede soziala bere bazkideen, enplegatuen eta komunitatearen bizi kalitatea hobetzea da, lekuko behar sozioekonomikoei modu kooperatiboan erantzunez. Energia-komunitate baten jarduerak garatzea du helburu, eta energia berriztagarrien erabilera sustatzea. Mankomunazgotik argi daukagu helburu horiek lortzeko Leargiri jarduna errazten ahalegindu behar garela, eta horregatik, bere bidean laguntzeko erabaki sendoa daukagu.

Laburbilduz, badaukagu mankomunazgoa garapen iraunkorrera begira jartzeko elementuak eta horretarako borondatea. Herrietako Plan integratuen koordinazioa, hondakinen kudeaketa egokia, Lea ibilbideko PSTD dirulaguntza eta Leargi energia komunitateari laguntzea izango dira mankomunazgotik bideratuko ditugun lehen pausoak.





Autokontsumoa, onuraren gako

ENERGIA BERRIZTAGARRIAK ES-KURATU ETA ERABILTZEA EZE-ZIK, INGURUMENA BABESTU ETA GIZARTE ELKARTASUNEAN LAGUNTZEA ERE BADU HELBURU LEARGI KOOPERATIBAK.

Lea Ibarrean Leargi energia berriztagarrien komunitatea martxan jarri dute, behar den energia lekuan bertan sortu, kontsumitu eta kudeatzeko. Horretarako, ibarreko bost udalerrietako bizilagunak batu dira kooperatiban, hau da, Munitibar, Aulesti, Gizaburuaga, Amoroto eta Mendexakoak. Irabazi asmorik bako kooperatiba da, eta bazkide erabiltzaileak dira nagusi. Nolanahi ere, ez dago zertan bazkide kontsumitzaile izan Leargiko bazkide izateko.

Egun Leargik 187 bazkide erabiltzaile dauzka. Hasieran 96 bazkide zeuzkan, eta gainerakoak aurtengo bazkide kanpainan gehitu dira. Ibarreko udalak ere bazkide-laguntzaile dira, hots, Amoroto, Aulesti, Gizaburuaga, Mendexa eta Munitibar. Kideek gogorarazi dutenez, helburua ez da diru irabaziak ematea, «ez bada ze gizarte onurak ematea bazkideei, kideei eta komunitate osoari».

Leargikoek batera egiten dute beharra, «elkarririk laguntzeko, eta ez etekin ekonomikoak lortzeko». Euren asmoa, beraz, ez da aurrezkira mugatzen. Are: «Energia berriztagarriak eskuratu eta erabiltzeaz gain, ingurumena babestea eta gizarte elkartasunean laguntzea ere bada gure helburua».

Autokontsumo partekatua

Leargiren lehenengo proiektua eguzki energiaren autokontsumo partekatua izango da. Horren

bestez, etxebizitzetan edo sarera konektatuta dauden eraikinetan instalatutako sistema fotovoltaiko bidez, energia sortu eta berehala kontsumitzeko aukera egongo da. Hain zuzen, urte honen barruan Leargiren lehenengo instalazio fotovoltaikoei ekin nahi zaie, euren bidez energiaren autokontsumo partekatua egiteko. Lehen instalazio horiek Mendexan kokatuko dira.

Hainbat abantaila ikusten dizkiote autokontsumo partekatuari: hasierako inbertsio txikiagoa, instalazio bakar bat egin behar delako —erabiltzaile askorentzat, merkeagoa da proportzioan hainbat instalazio txiki instalatzea baino—; muga gutxiago daude lekua aukeratzeko orduan —ez da beharrezkoa norbere teitlatua edukitzea. Inguruko teitatu egokiena aukeratu daiteke—; eta energia garbia ekoizten eta kontsumitzen da eta komertzializatzaileekiko dependentzia gutxiago dago.



Leargiko ohiko batzar orokorra.

Desabantaila bakarria ikusten diote sistema horri, eta bera juridikoa da. «Bi kilometrotako muga dago produkzio gunetik kontsumo gunetara, «peajeak» ordaintzetik libre geratzekotan. Muga hori juridikoa da, ez teknikoa. Legez ezarrita dauka Espainiako estatuak. Aldiz, Frantzian, adibidez, muga 20 kilometrotakoa da».

Kuotak

Bi kuota erabiliko dira Leargiren jarduera posible egiteko eta instalazioen hasierako ordainketarako: alde batetik, bazkide-tza kuota orokorra: bazkide denentzako bera; kooperatibaren jardueraren mantenua ziurtatzeko [kalkulatzen da 10-20 euro artean, bazkideko]. Eta beste alde batetik, kontsumo kuota bat: Leargik kudeatuko dituen instalazioetatik onura aterako duen bazkide bakoitzak daukan kontsumoaren arabera (inbertsioen diru itzuleragatik eta mantenturako).

Hasierako inbertsioak

Instalazioak egiteko hasierako inbertsioak erakunde publikoek egin ditzakete [boost udalek

JARDUERA EREMUAK

- ▶ Energia komunitatearen jarduerak garatu.
- ▶ Energia kontsumoa murrizteko informazio eta aholkuak.
- ▶ Energia mendekotasuna murrizteko jarduerak.
- ▶ Energia berriztagarrien azterketa eta proiektuak sustatzea.
- ▶ Argindarrari lotutako baliabideak modu mankomunatuan erostea.
- ▶ Ondasunak nahiz zerbitzuak hornitzea.
- ▶ Talde zaurgarriak eta baztertuak integratzea.
- ▶ Tokian tokiko baliabideak modu kolektiboan kudeatu.
- ▶ Ekonomia zirkularra bultzatzeko ekintzak antolatu.



Kooperatiba eratzeako batzarreko argazkia.

edo mankomunitateak], eta horren ostean instalazioen erabilerarako edo energiaren erabilerarako hitzarmenak egin Leargigaz; baita bazkide erabiltzaileek edo beste inbertsore batzuek ere, borondatezko aportazioekin. Mailegu bat balitz lez maneatuko da diru hori, eta urtero interesekin itzuliko [interese etikoa, %2-3 artekoa].

Borondatezko inbertsioekin ez bada lortzen behar dan guztia, banka etikoan mailegu bidez eskatuko litzateke [Leargiren diru kontua Fiare banka etikoan dago].

Inbertsio guztia itzuli ondoren, instalazioaren onurak Leargirenak izango dira. Leargik erabakiko du diru hori zelan inbertitu, beti ere bere helburuekin lotuta.

Kontsumo kuota ezartzeko erak

Aurreko urteetako argindar kontsumoaren arabera, bazkide kontsumitzaile bakoitzak energia lote gehiago hala gutxiago izango ditu berarentzat. Energi loteak kuota bat izango du, eta bazkide bakoitzak daukan loteen arabera ordainduko du kontsumo kuota.

Leargiren helburua da sortzen den energia guztia autokontsumoan erabiltzea. «Komenigarriago delako energia kontsumitzea soberan eduki eta saltzea baino. Eta norberak sortutako energiaren onura handiena lortzeko gakoa autokontsumoa da: zenbat eta autokontsumo gehiago, onura gehiago».

Laburrean

- Energia loteak bakoitzaren kontsumoaren arabera banatuko dira.
- Autokontsumo gehiago = onura altuago.
- Autokontsumoa bultzatzeko, ohitura batzuk aldatzen ikasi beharko dugu.
- Eguzkia indartsua den orduetan edukiko dugu argindar produkzio handiena: egunez.
- Kontsumo handiko etxetresna elektrikoak egunez erabili. Etxean ez bagegaude, programatu egin ditzakegu, edo gaur egungo etxetresna askok daukaten «hasiera atzeratua» funtzioa erabili.

LEARGI

LEA IBARREKO
ENERGIA BERRIZTAGARRIEN
KOOPERATIBA



AGUSTIN BENGOETXEA BEITIA | KIDKO LEHENDAKARIA

«ABANTAILA ASKO DAUDE BERTON FABRIKATUTA; DRAIN ARGI DAUKAGU EGINGO DUGUNA HEMEN EGINGO DUGULA»

KIDE kooperatiban kamerak, panelak, atek eta hotz ekipoak egiten dituzte. Enpresa sektorean indartsu dago 50. urteurrenaren atarian.

Kooperatiba 1975. urteurrenean sortu zen. Zelan izan zen hasiera hori?

Kide itsaso eta landa sektoreei alternatiba bat emateko sortu zen. Ondarroan sortu zen ideia eta Berriatuan mamitu. Harrezkero, poligonoa garatu zen, gaur egun Gardotzako poligonoa dena.

Ze produzitzen hasi zineten?

Hasiera-hasieran botileroak egiten hasi ginen, baina berehala hasi ginen hori utzi eta panelak egiten: isolatzeko panelak eta atek. 2006 bueltan dibertsifikatu beharra ikusi genuen, eta hotzeko makinak ere egiten hasi ginen. Boluntario talde bat eskatu zuten Kiden ikastera joateko Usurbilera. Hor hasi zen hotzeko proiektua. Gaur egunera arte.

Zertan desberdintzen zarete sektoreko gainontzeko ekoizleengandik?

Geu gara bakarrak dena saldu ahal dugunak: panela, atea eta hotza geuk egiten dugu bakarrik estatu mailan, eta guk dakigunera arte, baita Europa mailan ere. Horrez gain, lehorgailuak ere egiten ditugu [heltze prozesuetan erabili ohi dira]. Hotzagaz lotuta dagoen arren, nahiko gauza espezializatua da. Hor bai, hor ekoizle gutxi daude mundu mailan. Eta beti bereizten gaituzten ezauzgarrien bermeagaz, hau da, zerbitzua, hurbiltasuna, malgutasuna eta kalitatea.

Dibertsifikazioagaz batera, planta gehiago zabaldu zenituzten.

Pauso hori eman genuenean, hemen hasi ginen prototipoak egiten, eta 2008an Txinan planta zabaltea erabaki zen konpetitiboak izan gintzen. Gure hotzaren gama komertziala [establezimenduetan aurkitu ahal ditugunak] eta industrialia da. Txinan hasi ginen gama komertziala egiten. Lau urtera, Zestoako Arroan planta jarri genuen martxan makina industrialak egiteko, arlo horretako profesionalen esperientzia txertatuta, baina hura impassea izan zen, Berriatuko planta egokitu arte.

Izan ere, ekoizpen guztia Berriatuara ekartzea erabaki zenuten. Zergatik?

Momentu batean hiru lekutan egon gara: hotz komertziala egiten Txinan, hotz industrialia eta lehorgailuak, Arroan; eta panelak eta atek, Berriatuan. Hemen lanpostuak sortzeko apustua egin genuen, eta beldur hori kendu genuen, alegia, konpetitibo izango ez ginen beldurra. Erabaki genuen abantaila asko zeudela hemen fabrikatuz gero, hain urruti fabrikatu beharrik eduki barik. 2023 hasieratik dena Berriatuan daukagu, eta baieztatu dugu apustu ona izan zela. Edozelan ere, delegazioak daukagu Madrilan, Bartzelonan eta Balentzian, area komertzialak barne hartzeko.

Zein da Kideren merkatua?

Nahiz eta gure merkatu nabarmenena estatu espainola izan, egia da gero eta gehiago esportatzen dugula. Estatu kanpoko salmentak estatu barrukoekin parekatzen doaz.

Zelako fakturazioa daukazu eta zenbat lan-kide?

Fakturazioari dagokionez, azken urteetan, 35-40 milioi euro bitartean fakturatzen ari gara. Urte onak

edukitzen ari gara, eta proiektzioa hortik doa. Eta momentu honetan 175 lankide gara.

Zelan ulertzen du Kidek nazioartekotzea?

la mundu guztian saltzen dugu. Indartsuen Europan gaude, Hegoameriketara asko esportatzen dugu, Afrikan ere bagaude neurri txikiagoan eta puntualki beste leku batzuetara ere zabaldu gara. Horrenbestez, esportazioei garrantzia ematen diegu, baina bertan eginda. Izan ere, gaur egun argi daukagu egingo duguna hemen egingo dugula.

Ze hedadura dauka Kideren instalazioak?

8.000 metro koadro daukagu, gutxi gorabehera. Horrez gain, nahiko azalera handia behar dugu, ze gure produktuak bolumen dezente hartzen du, 12 metrorainoko panelak egiten ditugu eta. Industrialdean bertan enpresa batek zarratu egin du. Hango pabiloia erosi eta aktibitate berri bat mar txan ipiniko dugu.

Ze erronka daukazue esku artean?

Fabriketako sistema antolatzailea edo ERP birmoldatu egingo dugu: lehengai sartzan denetik produktua eginda irteten duenera arte prozesu guztia programa horrek eroaten du, logistika guztia, alegia, ze erosi behar den, gastatu ahala ze erosi behar den eta ze ekoitzi. Estreina, 2001ean egin genuen, hain zuzen gaur egungo ERPa. Eta orain hura ordezkaturiko dugu. Horrek lan handia eskatzen du. Hamabost urterako-edo balioko digu, zaharkitzen joaten dira eta. Datorren urtean ezartzen hasteko asmoa daukagu. Etorkizunerako erronka bat da.

Kooperatiba zaretan heinean, zuen funtzioa harago doa....

Kooperatiben erronka printzipala izan behar da mantentzea, ahal bada handitzea eta inguruan eragina edukitzea. Izan ere, kooperatibok nahi izaten dugu irabazten den dirua lantegia hobetzeko erabiltzea eta prozesuak hobetzea; alegia, hobekuntza, lanpostu gehiago sortzeko eta aberastasun gehiago banatzeko.

Hor dago konpromiso soziala ere....

Orain modan daude sustengarritasun planak. Hor sartzen da, besteak beste, berdintasuna, ingurumenaren errespetua eta gardena izatea norbere eginkizunetan. Kooperatiba garen heinean konpromiso soziala geure egiten dugunez, hortik gauza asko lehendik ere egiten ditugu. Beraz, guretzat hori gauzatzea errazagoa da beste enpresa batzuentzat baino [batzuk hutsetik hasi behar dira]. Guk bide bat eginda daukagu gauza askotan. Horrez gain, gure filosofiari jarraituz, irabazien zati bat, %10, gizartera itzuli behar dugu: hori araututa dago, baina ezin da ez edozeini ez edozelan eman.

Orekarik ba al dago generoari dagokionez?

Bai izan da oso kooperatiba maskulinoa zuzeneko lanpostuei dagokienez. Orokorrean zeharkako postuetan askoz orekatuago dago, eta plantan alderantziz da. Gure asmoa hurrengo urteetan zeharkako lanpostuak ere parekatzen joatea da.

Ze pauso eman dira formakuntza aldetik?

Formakuntza etengabeak beti daude. Batez ere premia zehatzei erantzuteko.

Nola daude eskualdeko kooperatiben arteko harremanak?

Leartibai Fundazioaren baitan, kooperatiben mahaia daukagu. Hiru hilabetetik behin, lehendakariak batzen gara, berriei laguntzeko zein Talentatu programa garatzeko. Kooperatibetako giza baliabideetako saileko arduradunak ere gu bezala maiztasunez elkartzen dira. Zuzendari Nagusien arteko harremanak ere oso onak dira.

Zertan datza Talentatu?

Horren barruan, aktibitate asko daukagu: ikastetxeetatik bisitak antolatzen ditugu kooperatibetara; ikasleei egun batean euren arloan diharduen jendeagaz lan egiteko aukera ematen diegu eta zientzia eta teknologiaren eguna antolatzen dugu, era entretenigarrian ikusteko zer egiten dugun. Helburua da jakin-mina sortzea, eta ahal bada, hemengo talentua bertan lotzea.

Ze berme ematen du Mondragonen parte izateak?

Elkarri laguntzeko mila eratako aukerak, eta aurrera egiteko sinergia asko.

Aipatu duzu Kideren sorreran eta bilakaeran ekintzaitzak izan duen pisua. Ze garrantzia dauka etorkizunera begira?

Ekintzaitza oso garrantzitsua da. Aldi berean, konplexua ere bada. Izan ere, oso arazotsua da profil profesional batzuk norbereganatzea, ze industriara bideratutako ikasketak ez daude modan. Gaur egun ez da hain erakargarria. Ez da erraza norbere enpresara lanbide batzuetarako jendea erakartzea eta gainera ekintzaitzaileak izatea.

Etorkizunean langile kualifikatuak faltako direla esan ohi da...

Jende falta edozein forotan mahai gainean da goen arazoa da. Estrategiak gero eta bideratuak daude jende hori erakartzera.

Ze leku dauka ikerketak?

Gasaren zentratuta gaude. Gasaren estatu aldaketak egiten du posible kamera bat hotzitzea. Gas-ihesak daudenean eta atmosferara joaten denean, kalte batzuk eragiten ditu: atmosferen beroaldia eragiten dute, eta gu buru-belarri ari gara ahal denik eta beroaldi gutxiena eragiten duten gasekin lan egiten eta gure hotz makinak horiei egokitzen.

Ze leku dauka euskarak Kiden?

Guk beti pentsatu izan dugu euskaraz egiten dugula lan, geure artean euskaraz egiten genuelako, baina konturatu ginen [hobe esanda, konturaturazi egin gintuzten] hori eta gehiago zela euskaraz lan egitea. Alegia, barne araudiak eta estatutu sozialak egon behar zirela, eta batzar orokorrak eta informazio trukaketa ere euskaraz egin behar zela euskaraz lan egiten genuela esateko. Txipa aldatu zitzaigun, eta horretara jarri ginen, euskara plana abian jarrita 2008. urtean. Alde horretatik, kontzientziatua gaude, eta hobekuntzak nabariak dira. Hala eta ere, eguneroko aurrez aurreko harremanetan atzera egin dugu, eta gaur egungo erronka da harreman horiek euskaraz izatea. Laburbilduz, euskararen inguruko erronkei erantzuteko, alde batetik, EMUN-en laguntza daukagu, eta bestetik, kooperatibako euskara batzordea. Eta zereginen artean, orain langileei euskararekiko konpromisoak eskatzeko aukera ikusten ari gara.





Komertzio txikiak, herriaren motor

BERRIATUKO UDALAK HERRIKO KOMERTZIOEN LANA TXALOTZEN DU, ZERBITZUAK HERRIAN MANTENTZEKO EGITEN DUTEN APUSTU ETA ESFORTZUAGATIK. HERRIKO ADMINSTRAZIOAK, BERE ALDETIK, TOKIKO ENPRESA TXIKIEN ESKARIEI ERANTZUN NAHI DIE EKONOMI JARDUERETAKO LURREN BIDEZ.

Berriatuko hirigunean zerbitzu edo komertzio aukera zabala dago martxan, jarduera ekonomikoa desberdinetakoak, gainera. Era horretara, bertatik bertara, lau taberna eta jatetxe, fruteria bat, terapia integratiboen zentro bat, bazar bat, janari denda bi, hortz klinika bat, botika bat eta bi ilepaindegi aurkituko ditu bidean herrigunetik dabilenak.

Udalaren esanetan, haien ekarpena ezinbes-

tekoa da herritarrei beraien beharriaz herrian bertan erantzuteko aukera ematen diotelako, inora mugitu beharrik gabe. Ez hori bakarrik: bertoko eskaintzak beste herri batzuetako bizilagunak ere erakarri ohi ditu. Nolanahi ere, herrikoentzat eurentzat da batez ere baliozgarri, eta udalak dio efektua bistakoa dela, herriari bizitasuna ematen diotelako.

Hori horrela, Berriatuko Udalak herritarrek herriko komertzioetan erostera animatzen ditu. «Jabetzen gara zerbitzuak herrian mantentzeko egiten duten apustuaz eta esfortzuaz, eta herritarrok horri erantzuten jakin behar dugu. Horrenbestez, herrian kontsumitzera animatzen ditugu», adierazi du Joseba Goienola Bilbao alkateak.

Enpresentzakolurra

Aktibitate ekonomikoa sustatzeko ekimenak ez dira falta, ez eremu pribatuan —hiriguneko zerbitzuen sorta zabala horren lekuko—, ez publikoan. Izan ere, kezka berari erantzunez, herriko administrazioak

eremu bat izendatuta dauka, propio, hainbat premiari erantzuteko. Ekonomia jardueretako lurra da.

Alde batetik, Gardotza eta Olaso industrialdeak daude, industria astunean oinarrituta eta hainbat enpresaren kokaleku, eta bestetik, Bego-bertan eta Kordeleriarako egitasmoak, plan partzialen bitartez garatu beharko direnak. Hain zuzen, administrazioak Bego-bertan eremua berregokitzea planteatu du. «Gaur egungo jarduerak lurzoru urbanizazinean daude, eta Hirigintza Antolaketarako Plan Orokorra urbanizagarri sailkatuko ditu, baita handitu ere», argitu dute. Neurriok HAP0a Bizkaiko Boletín Ofizialean argitaratzean jarriko dira indarrean.

Aldaketa horren bidez, udalerrak tokiko enpresa txikientzako biltegitratze, tailer eta bulego-erako espazioen eskaerari erantzun ahal izango dio. Instalatuko diren enpresak arinak eta garbiak izatea nahi da, tamaina txikiak eta kokatuta dauden ibarbidean eragin minimoa dutenak.

Kontserbazio basoetarako laguntzak

Udalak Berriatuko Baso Dibertsifikazio Ekologikorako Estrategia plana idatzita dauka, eta horren baitan, bigarren urtez, diru laguntza deialdia egin du baso jabeei begira. Zehazki, planaren helburuekin bat datozen baso jarduerak lagunduko dira diruz. Horregaz hauxe lortu nahi du udalak: bere etorkizuneko helburuekin bat datozen kontserbazio basoak eta naturatik hurbileko baso ekoizleak sustatzea.

Natura errespetatuaz

«Garai bateko baso kudeaketa eta diru iturrietatik harago, gaur egunean gero eta ageriagokoa da baso kudeaketa eredu berrien ekarpena, basoa kaltetu gabe egurra ekoizteko aukera egon ba-

dagoelako», adierazi dute. Hori bai: onartzen dute aldaketek denbora eskatzen dutela. «Gaur egungo abiapuntutik, gure mendien trantsizio ekologikoak denbora luzea eskatzen du diru-sarrerak lortu arte. Errealitate hori eta ematen dituzten ingurumen eta gizarte-zerbitzu ugariak kontuan hartuta, zuhaitzi autoktonoak sortzen, egokitzen eta zaintzen laguntzeko udal-ildo bat proposatu da, esku-hartzeak hasten direnetik aurrera, zuhaitzi mota bakoitzaren gizarte eta ingurumen ekarpenaren araberakoak», argitu dute.

Horretarako, udalak 8.500 euro ditu aurrekontuko partidari. Jasotako eskabideen bolumenak hala gomendatzen badu, zenbateko hori handitu ahal izango da, aurrekontu-kredituak aldatuta.

Diru laguntza jaso dezaketen jarduerak, oro har, 2024ko urtarrilaren 1etik 2024ko abenduaren 31ra bitartean egiten direnak izango dira. Hala ere, diruz lagundu daitezkeen jarduerak 2015etik aurrera egindakoak izan daitezke.

Lehenengo hamar urteetan, lehendabiziko beharrak egiten diren urtetik aurrera, garapen aske bideratutako masei lagunduko zaie, eta ez zuzaren ekoizpenari, baldin eta horien osaera lurzatian berez haziko liratekeen espezie autoktonoetan oinarritzen ez bada. Egindako kudeaketari esker, masa helduak eta ekologikoki heterogeneoak eta konplexuak lortuko dira, biodibertsitatea, lurzoruak, uraren zikloa eta paisaia lehengortzeko.



**BERRIATUKO
UDALA**

www.berriatua.org



Kordeleria gunea, plan partzialen bidez industria jardueretarako garatuko den guneetako bat.

Berrikuntzaren erreian

CIKAUTXO ESKUALDEKO ENPLEGATZAILE NAGUSIA DA, 463 LANPOSTU ZUZENEKIN. ERA BEREAN, INDUSTRIA ENPRESEN SORRERA ETA 200 LANPOSTU BAINO GEHIAGO BULTZATU DITU.

1966an Lea-Artibaiko gazte ekintzaile talde bat kooperatiba industrial bat sortzeko biltzen hasi zen Ondarroan. Haien artean zeuden Arrasateko Eskola Politeknikoan ikasitako eta kooperatibagintzaren oinarriak barneratutako hainbat lagun; baita itsasoak ematen zuen aberastasunetik harago eskualdearen garapenerako bestelako lana eta lanpostuak sortzeko premia ikusten zuten hainbat gazte ere, baserriarrak zein Eibar aldean ikasi edo lanean ibilitakoak.

Bilakaera

«Cikautxo enpresak garapen jasangarriagaz konpromiso sendoa eduki du hasiera-hasieratik, eta enplegua sortzeko eta bere ingurune sozialaren garapen ekonomiko eta gizatiarrean jarri du arreta, betiere ingurumen-baldintzak errespetatuz», nabarmendu dute. Eskualdeko enplegatzaile nagusia izatea lortu du 463 lanpostu zuzenekin, eta tokiko ekonomiari lagundu dio, industria-enpresen sorrera eta 200 lanpostu baino gehiago bultzatuz.

Gainera, enpresak lankidetzaren estua izan du hezkuntza-komunitateagaz, Lea Artibai Eskola sortzen lagundu baitu eta Erkidegoko eta filialak dituzten herrialdeetako hainbat prestakuntza-zentrogaz elkarlanean aritu. Halaber, taldeko hainbat enpresatan praktikak egiten ari diren 11 ikasle baino gehiagoren prestakuntza eta garapen profesionala ere babestu du, estatu mailan zein nazioartean, eta ostatua, bidaiak eta aseguruak eskaini dizkie egonaldi egokira bermatzeko.

Lankidetzak eta konpromisoa

Komunitate zientifikoarekiko lankidetzari dagokionez, Cikautxo LEARTIKEReko bazkidea da. LEARTIKER Polimeroen Teknologian eta Elikagaien Teknologian espezializatutako ikertzaile-talde bat da, eta zientziaren eta teknologiaren irakaskuntza motibatzaileagoa sustatzeko proiektuetan parte hartzen du.

Enpresak bere emaitzen zati bat gizarte, kultura eta kirol-jarduerak babestera bideratzen du, eta eskualdeko erakundeekin elkarlanean aritzen da, hala nola, Azaro Fundazioagaz eta Enpleguaren aldeko Kooperatiben Mahaiaigaz. Gainera, hizkuntzak ikasteko prestakuntza-bekak eskain-

tzen ditu, eta Lekeitioko eta Ondarroako arraunklubei laguntzen die, bai eta emakumezkoen entrenuari ere, kirol jarduerak babesteko eta laguntzeko ekimenen barruan.

Horrenbestez, Cikautxo enpresak konpromiso sendoa erakutsi du garapen jasangarriagaz, enplegua sortuz, tokiko ekonomiari lagunduz, hezkuntza eta zientzia komunitateagaz lankidetzan arituz eta inguruko gizarte, kultura eta kirol jarduerak babestuz. Prestakuntzan, garapen profesian eta gizarte eta kirol ekimenetarako laguntzan duen ikuspegiak komunitatearen jasangarritasunarekiko eta ongizatearekiko duen konpromiso integrala erakusten du.

Dibertsifikazioa

Automobilgintza merkaturan azkenengo urteetan aldaketa nabarmenak bizi izan dira Europako ingurumen zaintza bultzatzeko adostu diren legedien ondorioz: merkatua auto elektrikoak garatzen hasi da, eta horrek merkatuaren egitura gogor astindu du. Ibilgailuen teknologia berri hauek garatzeak eragina izan du Cikautxon ere, eta aldaketa handiei aurre egin behar izan die inbertsio eta gara-

Automobilgintzaren eraldaketak lan leerroak birpentsatzea ekarri du

pen teknologiko berriekin. Zehazki, eboluzio horrek produktu leerroak birpentsatzera eta egokitzera eraman ditu. Era horretara, produktu batzuk desagertzen joango diren heinean (turboko hodiak, konbustio motorren hodiak, ihes euskarriak, etab) beste produktu batzuk gehiago erabiliko dira (hozte sistemak) eta produktu berriak garatzeko aukera berri batzuk ere agertuko dira (kudeaketa termikorako moduluak, hodi mota berriak, anti-bibratzaileak, hodiak, etab). Aldaketa nabari hauek Etxetresna elektriko eta Materialen merkaturarako saltzen dituzten beste produktu leerroen hobekuntzan eta dibertsifikazioan ere aurrerapausoak ematera behartu ditu.

Bezeroen kartera

Cikautxoren bezero portafolioan ondorengoak daude:



Automobilgintzako bezeroen artean batzuk aipatzekotan: VW taldea, Ford, GM, Renault, Mercedes Benz, Nissan.

Etxetresnetako [garbigailuak] bezeroak: BSH [Bosh/Siemens/Balay,... markekin merkaturatzen dituzte garbigailuak], Miele, Electrolux [Electrolux, Zanussi, AEG,... markekin merkaturatzen dituzte garbigailuak].

Materialen merkatua: umeen parkeetako lurzoruetan instalatzen den kautxu granulatuak, Cikelast markagaz merkaturatzen dutena, ekoiztu eta saltzen dute. Bezero nagusia Kompan da [parkeetako jolasak egiten dituzte].

Erronka ekosoziala

«Gizarteak eskatzen dizkigun erronka ekologiko berri hauek bete behar izanak behartzen gaituzte petroliotik ateratutako hornidurekin eta materialekin lan egitera, hau da, berrerabilitako materialak edota bio jatorria duten materialak garatzera eta erabiltzera gure produktuetan [adibidez, gure CikaBIO edota CikaREC materialak] eta gure karbono azterna ere gutxika-gutxika murrizten joatea», adierazi dute. Aldi berean, diote munduko merkaturaren egitura ere nabarmen aldatzen hasi dela geopolitika ikuspuntutik. «Asiatik datorren konpetentzia handitzen doan heinean, mundua erregioa/bloketan banatzen hasi da, eta horrek Cikautxori egoerara moldatzea suposatuko dio etorkizunean, zehazki, negozioak erregioa eta autonomoki kudeatzeko gaitasuna garatzea».


Mondragoneko kide izatearen bermea

Mondragon taldearen parte izateak onura gehigarri batzuk dakartzio Cikautxori, onartzen duenez. «Bai negozio berriak garatzeko aukerak zabaltzen dizkigulako eta horretarako kooperatiben jakintasuna partekatu eta elkar laguntza ahalbidetu [adibidez, gure produktuei elektronika gehitzea edota gure produkzio prozesuetan adimen artifiziala duten elementuak erabiltzea], bai talde handi baten parte izateak egonkortasuna eta potentzia ematen dizkigulako egunerokotasunean eta baita sozialki ere eskualdean sortzen diren onurak eta lan egiteko aukerak partekatuzko».

Berrikuntzara begira

Cikautxo berrikuntza programetan sartuta dago. Hiru mailatan sailatzen dira berrikuntza proiektuetarako finantzazioa lortzen.

Cikautxoren historiaren denbora-lerroa



Euskal Autonomia Elkarte mailan Spriko programetan parte hartzen ari dira, bakarrik edo beste enpresa batzuekin elkarlanean produktu berriak garatzeko erronkagaz.

«Momentu honetan, adibidez, Hazitek Estrategikoak eta Konpetitiboan ditugu martxan (fondogaldurako laguntzak), orokorrean, bateriazko eta hidrogenozko kotxe elektrikoekin lotutako gaien ingurukoak dira. Ibilgailu mota hauetan dauden eskakizun berrietara egokitutako produktuak garatzea da betiere gure helburua», azaldu dute.

Ibilgailu elektrikoagaz batera, beste berrikuntzako ardatz nagusia digitalizazioa da, eta adibide jarri dute. «Adibidez, simulazioetarako gaitasunak gehitzea ahalbidetzen du, garapen fasean prototipoak egin beharrik ez izateko eta gure produktu bizi edo portaera aurreikusi ahal izateko». SPRI-ko programetaz aparte, PERTE VEC-aren barruan ere badituzte proiektuak, baita Europa mailako programetan ere.

Ikerketak pisu garrantzitsua dauka enpresetan, baita Cikautxon ere. «Ikerketa funtsezkoa eta ezinbestekoa da gure enpresaren etorkizuna bermatu nahi badugu. Ezinbestean, bai ibilgailuetan, bai industrian orokorrean ere, datozen eraldaketetara moldatu behar gara, mundu konpetitibo honetan jarraitu eta hazi nahi badugu».

Gainera, Cikautxok ibilgailu elektrikoan ez dauden zenbait produktu linea dauka, eta, beraz, eraldaketak linea horiek mehatzatzen ditu. «Gure erronka produktu horiek ordezkatzeko dituzten produktu edo negozio berriak sortzea da, betiere hazten jarraitu eta bailaran lana bermatzeko».

Euskara

2002an hasi zen Cikautxo euskara normalizatzeke lana egiten. Lehenengo euskara plana sortu zen, baina 2013an Hizkuntza politika [globalizazioaren eraginez] orokorra onartu zuten Cikautxok, helburua hizkuntza desberdinak erabiltzeko oinarritzko arautegia ezartzea izanik: lekuan lekuko hizkuntza lehenetsi eta bermatuz.

«Euskararenganako konpromisoaren erakusle, 2023an hirugarren aldiz lortu zuten Cikautxok Bikain urrezko ziurtagiria», gogorarazi dute. Era berean, urtarilean Languages Lanean kongresuan hizlari izan zen Cikautxo-ko lehendakariorde Jon Atxurra Aranguren. Bertan, jarduera ekonomikoaren baitan hizkuntza kudeaketak daukan erronken inguruko esperientziak eta ezagutzak partekatu eta eztabaidatu zituzten.

Generoaren tratamendua

Parez pare taldea sortu zen Cikautxon duela urte batzuk, generoaren tratamendu egokia ziurtatzeko. Berdintasunaren inguruan jorratzen diren gaien berri eman eta informazioa zabalitzeko, *Berdintasunaren Olatua* aldizkaria argitaratzen da, urtean hiru zenbaki. Cikautxok Berdintasun Plana dauka, diskriminaziorik ezaren politika eta protokoloek babestuta, gure Erantzukizun Sozial Korporatiboaren Prozesuan modu organikoan txertatuta.

Talentua erakartzeko planak.

Cikautxok Mondragon Unibertsitatea, EHU_UPV, Deustuko Unibertsitatea, IMH eta Lea Artibai Ikastetxea eta Durangoko Maristak bezalako lanbide heziketako zentroekin lan egiten du, talentua erakartzeko. «Beraien bidez, prestakuntza dualen, praktiken eta karrera amaierako proiektuen lankidetzak mantentzen dugu».

Bestalde, Cikautxok Innobasquegaz eta Lea Artibai Fundazioagaz lankidetzan dihardu, eta, horren bidez, STEAM bokazioak sustatzen ditu gazteen artean. Urtero, Berriatuko instalazioetan, Lea-Artibaiko, Bizkaiko eta Gipuzkoako hainbat ikastetxetako gazteak hartzen dituzte, eta bisita bidez, produktu-prozesua eta garatzen dituzten produktuak erakusten dizkiete.

Era berean, Kooperatiben Mahaia elkartearen parte hartzen du eskualdeko gainerako kooperatibekin batera, non, besteak beste, Talentatu programa abian daukaten, hain zuzen talentua sortu eta erakartzeko.

JAKINGARRIAK

Sorrera

- ▶ Noiz: 1971. urtean.
- ▶ Non: Berriatua, Bizkaia.

Izaera eta helburuak

- ▶ Izaera: Kooperatiba. Langileek parte-hartze aktiboa dute enpresaren kudeaketan eta erabaketan.
- ▶ Helburuak: Ekoizpen helburuak: Kautxu eta plastiko osagai teknikoak fabrikatzea, hala nola hodiak, junturak eta bibrazioak xurgatzeko piezak. Merkatu helburuak: Denbora-gaz, nazioarteko merkatuetan ere zabaldu da.

Hainbat ekintza esanguratsu

- ▶ Cikamintza beka.
- ▶ Gomatartan aldizkaria: plantetako pertsonak edota eguneroko jarduna ezagutzera emateko.



cikautxo

www.cikautxo.es



**EVA
ARANBARRI
EGIA**
Zatozte
Ondarroako
Merkatari Elkarte



MERKATARITZA

Merkataritzak herrian lana sortzen du, eta merkatuak sozializazioarako gune dira

Merkataritza **aldaketa handi eta azkarrak** pairatzen ari da. Horregatik **etengabe ego-kitu behar dira** gure merkataria, bakoitzak gaur egun duen edo izan nahi duen bezeroaren beharrak ondo ezagutuz eta bere zerbitzu eta produktuak hori asetzera bideratuz. Dakigunez Internet asko erabiltzen da gaur egun, eta hori ere erronka handia izaten ari da beraientzat, ez baita erraza enpresa erraldoiekin konpetitzea.

Arin aldatzen doan sektorea izateaz gain, denda **jabeen adina** ere oztupo bilakatu da azken urteotan herri guztietan eta nola ez Ondarroan. Denda batzuk jubilazioz ixten ari zaizkigu, horrek dakarren eskaintza gutxitzea herriarentzat ez delarik bat ere ona. Nahiz eta badugun dendaren bat langileak hartu duena eta berriren bat ere irekiko den, herritarrak animatu nahiko ge-

nituzke euren negozioa hemen ipintzera herrian zerbitzuak izan ditzagun.

Ondarroako merkataria beti egon dira **elkartuta, herriko ekonomia diren heinean**. Horren isla da **Zatoztek 23 urte** daramatzela herriko merkataria eta ostalarien elkarte lanean. Batzuetan kanpora begirako ekin-tzekin eta beste batzuetan barne lana egi-ten.

Merkataritzak herrian **lana sortzen du eta sozializazioarako gune dira**. Herriko hainbat elkarteren bidelagun ere badira. Azken finean hala edo nola herriko denda eta tabernak herriarekin daude uneoro.

Herriaren egoerak eragin zuzena du sektorean (aparkamentu gabezia, biztanleriaren beherakada, jendeak kanpoan lan egitea, ...). Hori dela eta, Zatozte Elkarteak udaleko hainbat batzordetan parte hartzen du, eta

posible den heinean bilera guztietan egiten ditugu gure ekarpenak eta proposamenak.

Era bearean, Leartibai Fundazioarekin ere elkarlanean aritzen gara gure eskualdeko informazioa konpartituz, eta Bizkaidendak Federazioan gaude, hain aldakorra den sektore honetan ematen diren aldaketa eta laguntza guztien berri izaten dugularik.

Dendari eta tabernariak ondarrutarrak dira, euren ogibide herritarron beharrak asetzera bideratutako zerbitzua aukeratu dutenak.

Ondarroa beti izan da herri bizia eta bizitza herrian bertan egiten dugu, eta hori egiten jarraitzera animatzen ditugu ondarrutarrak.

Herrian erein, herria loratuz!

EUSKARA



**JUNE
PRIETO
DIEGO**
AEK

litzaidake: alde batetik, publikoa; eta, bestetik, pribatua. Anabasa horretan guztian, soilik uste dut, horrela jarraituz gero, gure hizkuntzaren etorkizuna pobre xamarra izango dela. Eta pobrezia eta lan mundua hitzek elkarrekin doinu eskasa sortzen dute. Hiztunok geureari eutsi beharko diogu, baina oraindik euskaldunak ez direnek gaiari ekin egin beharko diote ikuspegi baikor batetik.

Sektore publikoari dagokionez, orain arte pertsona askorentzat euskara ikastea oposizio batzuk ateratzeari lotu zaio, eta horri esker hurbildu dira gure mundua ulertzeko modu honetara hainbat eta hainbat langile.

Ederto. «Hizkuntzak hiztunekin aberasten dira» zioen Korrikako kantak. Beste askorentzat urteetako prozesu malkartsu bihurtu da euskara ikastearena, gorrotoa sentitzeraino. Nire zalantza da ez ote dugun jartzen foku handiegia langileengan. Berez, ondo dago norberaren bizitza hobetu nahi

izatea lanpostu egonkor batekin, baina herritarrei arreta eskaintzea da helburua, eta Euskal Herrian bezeroak euskaldunak dira. Beraz, hemen funtzionario izateko hautaketa pertsonala egiten duzun unean, euskara ere hautatu egiten duzu. Gustatu ala ez.

Sektore pribatuan, eta baikortasunari heldu nahian, Lea-Artibaiko enpresa askotan (lehen, bigarren eta hirugarren sektoreetan) beharra egiteko erabiltzen da euskara. Zuzendaritzak jartzen ditu oasirako baldintzak; dena dela, pertsona bakar batzuen erabakiak enpresa guztian du eragina. Hala ere, aurrerapauso hori ez galtzea komeni da, eta egiaztatuta dago euskara baliagarria dela lan egiteko.

Euskaraz bizitzeko pausoa eman ez duten enpresa horiei animoak ematea besterik ez zaigu geratzen; izan ere, badirudi animoak eta baikortasuna izan behar direla beti gure bandera, ez dezagun euskara inposatu edo derrigortu, hori ez baita gure estimoa, edo bai?

Baikortasunetik

«Euskara lan munduan» ez da gai makala. Gurera ekarrita bi alor jorratzea gustatuko



NEREA URRUTIBEASKOETXEA ALDEKOGARAI

Lea-Artibaiko Landagarapen
alkarteko arduraduna

LANDA EREMUA



LEO BELAUSTEGI ALBERDI

Ondarroa 12 milla

ITSASOA

Arrantzaren geroa bilatzen

Euskal Herriko portuetan gero eta arrantza ontzi gutxiago daude. Hori, nagusiki, arrantza politika oker eta suntsitzailen ondorioz gertatu da. Jarduera ekonomikoaren gainbeherak, aldi berean, harrapaketa ahalmenaren (kuoten) galera ekarri du.

Mendea joan mendea etorri euskal kostaldeak ezagutu duen aberastasunak 80ko hamarkadan abiatu zen joerari utzi dio lekua: mota guztietako itsasontziak desagertu dira. HITZA eremuko portuetan adibidez, Bermeo eta Mutriku artean, ehunka ontzi, milaka arrantzale eta ehunka langile zeuden; gaur, aisialdirako ontziak bakarrik ageri dira. Politikariek ardura zuzena daukate. Errentagarritasuna aitzakia hartuta, kudeaketa industrial eta kontrolik gabeko harrapaketa bultzatu dituzte, gure arrantzalekueetatik espezie ugari desagerraraziz. Hori gutxi balitz, porturatzen den arraina aurreko mendeko prezioetan saltzen da. Espekulatuzaileek kontrolatzen dute merkatua: lonjetan arraina saldu ezinik eta kontsumituzaileok, aldiz, arrain hori erosi ezinda gabilta, arraindegietan garesti saltzen delako. Ondorioz, arrain kontsumoa izugarri jaitsi da.

Sektorea iparra galduta dabil. Arrainaren kudeaketa eta kontrola hirugarren batzuen eskuetara bideratu dute; laguntza publikorik gabe, armadoreek ezin dute aurrera egin, eta tostartekoak itsasoratu nahi ezta dabilta, sufritzen dituzten lan baldintzak esklabutzaren parekoak direlako.

Egungo Euskal Herria, mendetako aberastasun kultural eta ekonomikoaren ondorio zuzena da. Ezin dugu guztia kareletik bota. Arrantzaren etorkizuna bermatu behar dugu, elikadura burujabetza helburu hartuta, artisau arrantzaren aldeko apustua eginez, kuotak publikoki kudeatuz, salmentak kontrolatuz eta arrantzaleen lan baldintzak hobetuz. Eta hori kofradietatik bideratu behar da. Iparra horrek marcatzen du.

Nekazariak eta elikagaien ekoizleak mirestu egin beharko genituzke

Azken urteotan aldaketa nabarmenak gertatu dira orokorrean eta horiek, nola ez, eraldaketa sozioekonomikoak ekarri dituzte baita landa eremura ere. Teknologia berriei lotutako globalizazio prozesuak, familia egituren aldaketak, lurzorua artifizializazioa, ekoizpen eta kontsumo joera berriak, jaiotza tasaren jaitsiera, biztanleriaren zahartzea,...

Aldaketa hauek guztiek erronka berriak dakartzate, eta aldaketa nabarmenagoak ekar ditzakete hiritarren eta landa eremutarren artean. Horrela izanik, ezberdintasun hauek murrizteko eta lurraldearen kohesioaren alde apustua egin beharko litzateke, biztanleko guztiaren berdintasuna bilatuz.

Bestelako eraldaketa sozioekonomikoak ere egon dira landa eremuarekin harreman zuzenagoa dutenak: nekazaritza sektorearen garrantziaren galera, familia-errelebo eza, lehen sektorean ekiteko inbertsio handien beharrezana, nekazaritza eta abeltzaintza jardueretako enpleguaren erakargarritasun falta,...

Horri guztiari aurre egiteko erraztasunak eman beharko lirateke, horretarako politikak diseinatu. Administrazioak kontuan izan beharko luke ekoizpenetik at gehitzen diren lanek euren eguneroko zereginetatik, euren misiotik, urruntzen dituztela. Eta hori dela eta, administrazioaren inguruan ari garenok ere ahalegina egin beharko genuke ahalik eta modurik koordinatuenean lan egiteko, guztion eginbeharrak errazteko.

Lehenengo sektorea oinarrizko sektorea da, bizitzeko behar-beharrezkoak zaizkigun elikagaiak ekoizten dituen sektorea da eta ingurumenean ere eragin positibo zuzena duen sektorea da.

Nekazari eta elikagaien ekoizle diren pertsonenganako zein baso jabeenganako miresmena izan beharko genuke.

Etorkizunera begira, gaur egunetik hasita eta bakoitzak ahal duen heinean, sektorea berrindartzeko apustua egin beharko genuke.



Portua, beste jarduera batzuetara ere zabalik

LEARTIBAI FUNDAZIOAGAZ ELKARLANEAN, HERRI ARRANTZALEAREN NORTASUNA MANTENDUZ, PORTUA BESTE JARDUERA BATZUETARA ZABALTZEKO PROIEKTUAN BURU-BELARRI SARTU DA ONDARROAKO UDALA.

Ondarroako ekonomian ezinbesteko garrantzia du portuak. Are: hiribildua sortu zenetik, portua izan da haren eragile ekonomikoa. Egidazu kaia 1937an erakiki zen, herria arrantza jardueri erantzuteko behar modura prestatuta egoteko. Etorkizunean ere pisua izaten jarraitu ahal du herriko ekonomian, aukera berrietara zabalduz gero. Hori uste du udalak, eta babes osoa eman dio Leartibai Fundazioak kaiari aukera berriak bilatzeko ekin dion egitasmoari, hots, Fishinn Interreg Atlantic Area proiektuari.

Hiru urteko proiektua da, eta batik bat Ondarroako portuan eta Lea-Artibaiko arrantza-hornikuntzaren katean berrikuntza-aukerak sustatu nahi ditu, Ondarroako eta Lekeitioko portuak abiapuntu hartuz. Nazioarteko talde baten parte dira, Frantzia, Portugal eta Irlandako beste erakunde batzuk proiektuko kide baitira.

Helburu nagusia Atlantikoko eremuan tokiko arrantza-ekosistemen eta hornikuntza-kateen lehiakortasuna eta erresilientzia areagotzea da, horretarako tokiko eragileen lankidetzeta eta berrikuntza-gaitasunak indartuz.


Horrenbestez, proiektuak haxe sustatuko du: itsasoaren inguruko jarduera ekonomiko berriak sortzea eta tokiko arrantza-ekosistemetan negozio-eredu adimentsu, zirkular eta eraginkoragoetara eta irtenbide berritzaileetara

igarotzea, betiere lurralde horietako pertsona interesdunen artean ezagutzak partekatuz eta zentro teknologikoen eta klusterren laguntzagaz. Izan ere, Atlantikoko arrantza-industriak gainbeherari egin behar dio aurre, eta FISHINnek lagundu egin nahi du tokiko arrantza-tokiak lehiakorragoak eta indartsuagoak izan daitezen. Hori tokiko pertsonak eta taldeak bilduta egiteko asmoa dute, hobeto lan egiteko eta ideia berriak sortzeko. Ezagutzak partekatzean eta teknologia berriak erabiltzean, soluzio adimentsunak eta eraginkorragoak sortzea espero dute.

Proiektuaren ardatz nagusia, beraz, kooperazioa, berrikuntza, digitalizazioa, trantsizioa, ekonomia zirkularra eta ekonomia urdineko sektoreen arteko lankidetzeta izango

Itsasoaren inguruko jarduera ekonomiko berriak sustatu nahi dira, eta gaur egungoak berrindartu

Lea-Artibaiko arrantza ekosistemaren balio katea





da, eta 1.200.000 euro inguruko aurrekontua edukiko du.

Leartibai Fundazioa da proiektu horren buru, eta honako erakunde hauek ere biltzen ditu: Frantziatik, Pôle Mer Bretagne Atlantique eta Technopole Quimper Cornouaille; Portugaletik, Sines Tecnopolo; eta Irlandatik, Munster Technological University.

Faseak

Proiektua fase ezberdinetan banatzen da: lehenengo fasean, portuen diagnostikoa egin da, erronkak eta aukerak identifikatu, eta tokiko berrikuntza-foeroen bidez partaideen artean partekatu; bigarren fasean, Atlantiko eremuan identifikatutako erronka horiei aurre egiteko, negozio-ideia berriak eta irtenbide berritzaileak identifikatu eta aztertuko dira; eta hirugarrenean, berrikuntzarako ideiak hautatuko dira eta eskualdeko berrikuntzarako ibilbide-orriak garatuko dira. Ibilbide-orri horien azken helburua berrikuntza-ideiak edo negozioak eskualdera transferitzea izango da. Izan ere, proiektuak eskualde osoan eragin nahi du, ez bakarrik Ondarroan.

Lehenengo fasearen baitan, martxoan Portugaleko, Irlandako eta Frantziako enpresa eta elkarteetako ordezkariak Lea-Artibain egon ziren. Hain zuzen ere, Ondarroako eta Lekeitioko portuak bisitatu zituzten arrantza hornikuntzako katean berrikuntza aukerak sustatzeko ideiagaz. Lekeition eta Ondarroan arrantza teknikak, arrantzatzen diren espezieak eta bi portuek Euskadiko arrantza-sektorean duten garrantziaren inguruan aritu ziren. Ekainean, Irlandako esperientzia ezagutu ahal izan zuen, besteak beste, Ondarroako Onare elkarteak, beste eragileekin batera. Urtarrileko bisita-bilera Frantziako Bretainiara izango da. Horregaz batera, proiektuak hainbat urrats emango ditu, besteak beste, praktika onen bilaketa Atlantic Area eremuan, non Hazkunde urdinaren estrategiaren baitan hamabost enpresa identifikatu nahi diren. Horretaz gain, Ondarroan bertan, udalak portuko lokalaren egoeraren inguruko azterketa egingo du, lokal hutsen diagnostikoa egiteko.

Ekonomia urdina

Europar Batasunak eraldaketa estrategikoa planteatu du trantsizio ekologikorantz eta ekonomiaren deskarbonizazioz, funts publikoekin babestuta, eta horren baitan ere badago proiektu hau.

Ikuspegi horri lotuta, baliabide ozeanikoen erabilera jasangarria planteatzen da, hau da, hazkunde ekonomiko, bizibideen hobekuntza eta enpleguaren hazkunde ekosistema ozeanikoaren osasunagaz bat joanez.

LEA-ARTIBAICO ARRANTZA EKOSISTEMAREN EGUNGO EGOERA

Lehenengo fasean jarritako helburuak beteaz, Leartibai Fundazioak arrantza sektorearen eskualdeko diagnostikoaren informazioa landu du, kuantitatiboki eta kualitatiboki. Diagnostiko kualitatiboki dagokionez, 25 elkarrizketa egin ziren sektoreko eragile eta enpresen artean, eta hauek izan ziren emaitzak, laburbilduz:

Gaitasunak

1. Azpiegiturak: arrain-lonja berria, espazio libreak egon daitezke portuan negozio berritzaileak kokatzeko. Offshore itsas poligonoa dugu Lea-Artibaiko kostaldean negozio berriei ekiteko.
2. Merkatua: nazioartekotze maila handia duten enpresak ditugu, salmenta-sare sendo bategaz. Ondarroako erosleak internazionalki ondo posizionatuta daude.
3. Know-how: Ondarroako portuak esperientzia dauka itsasontzien konponketan eta mantentze-lanetan, alturako nahiz baxurako arrantza du, eta elikagaietan oinarritutako I+G zentroa dago eskualdean.

Indartzeko gaitasunak

4. Digitalizazioak sektoreari eraginkortasuna eman diezaioke, eta bere lehiakortasuna hobetu.
5. Kudeaketa-tresnak ezartzeak onura handiagoak ekar litzateke.
6. Enpresa eta eragileen arteko lankidetzak inbertsio-gaitasun handiagoa lor lezake sektorea berrindartzeko.
7. Arrainaren alderdi osasungarriak plazaratuta, arrain-kontsumoa sustatu daiteke.

Erronkak

8. Ondarroako egite ona sektorean zabaltzea.
9. Proiektu amankomun bat behar da sektore publikoaren eta pribatuaren lankidetzak sustatzeko.
10. Belaunaldi-errelebo duina bermatzea.
11. Digitalizazioagaz negozio-eredu berriak sortzea errentagarritasuna bermatzeko.
12. Arrainaren balioa eta posizionamendua handitzea.
13. Errepide bidezko garraioaren konektibitatea hobetzea.
14. Errefusoen edo balio gutxidun arrainekin, proteina-iturri berriak sortzea.

Aukerak

15. Hazkunde urdinaren esparruak garapen ekonomiko iraunkorragorako aukerak zabaltzea.
16. Ekintzailtza sustatzeak tokiko ekosistema indartu dezake.
17. Erakunde pribatu eta publiko guztien lankidetzak aukera berriak eman ahal ditu.
18. Merkatu-eredu-estrategia berriak merkatuaren eskaeretara hobeto egokitzea ekar lezake.
19. Arrainez egindako elikagai berriak garatzea.
20. Txikizkako merkataritza sustatu, tokiko ereduak indartuz.

II.
Arrain
Txikizkariak

KONTSUMITZAILEA



ondarru
bixi-bixi

ONDARROAKO UDALA
ondarroa.eus | udalbarriak.eus



Etorkizuna eraikiz

GORETTI ASTIGARRAGA ARGOITIA | LANBIDE HEZIKETAKO ARDURADUNA
NOELIA BARRUETABEÑA ARRIAGA | ZUZENDARIA
XABIER URANGA LARRAÑAGA | ENPRESEKIN HARREMANAK

«URTERO, DIRUTZA INBERTITZEN DUGU PUNTAN EGON ETA BEHARRIZANEI ERANTZUTEKO»

Enpresak kezkatuta daude gero eta zailtasun handiagoak dituztelako lanpostu espezializatuak eta goi mailako teknikiari ordezkatzeko. Hezkuntza komunitateak hori erantzuteko egiten duen esfortzuaren erakusle da Lea Artibai Ikastetxea.

Zelan erantzuten zaio lan mundutik dagoen lanpostu espezializatuen eskariari?

NOELIA BARRUETABEÑA ARRIAGA: Premiak detektatu eta jaurlaritzari formakuntza emateko baimena eskatzen diogu. Hark horretarako aukerarik ematen ez badigu, beste bide batzuetatik horri erantzuten ahalegintzen gara, Lanbideko ikastaroetan ziurtagiri profesionala eskuratzeko aukera emanez: hau da, araututik barik ez araututik bideratzen.

XABIER URANGA LARRAÑAGA: Nabarmentzekoa da gaur egun nolako garrantzia daukan zenbait enpresatan titulazioak baino formakuntza edukitzeak, gehienbat esparru industrialetan; eta horren egiaztagiria, lanpostu duin eta iraunkor bat edukitzea.

Zeintzuk pauso eman dira zehatz lanbide heziketan?

N.B.A.: 2023-24 ikasturtean martxan ipini genuen elektrizista izateko Erdi Mailako Zikloa. Aurten, bai eskaerak, bai gure instalakuntzek baimentzen dutena ikusita, soldadura eta galdaragintza erdi mailako zikloa eta zibersegurtasuneko masterra ipini ditugu martxan. Premiak jakiteko, alde batetik, estatistika publikoek diotena daukagu, eta bestetik, enpresek esaten digutena.

Eta praktikak antolatzeko orduan ze bide jarraitzen duzue?

X.U.L.: Hemen ez dauzkagu bakarrik Lea-Artibaiko ikasleak, ezbadaze baita Busturialdekoak, Mutrikuakoak, Durangaldekoak edo Gasteizkoak ere. Horregatik, praktikak pertsonalatuak prestatzen ditugu. Bakoitzari praktikak bere inguruan bilatzen ahalegindu behar gara, eta horretarako enpresak antzuten behar ditugu: jakin estatistikak diotenaz gain, zein den euren benetako egoera.

N.B.A.: Eskualde honek beste ezaugarri bat ere badauka: garraio publikoaren sareko hutsuneak. 16 urtekoak ere badaukagu tartean, eta adin horregaz gida baimenik ez daukate eta garraio publikorako aukera ere murrizta, batez ere industrialetara hurbiltzeko. Gure jardueratik kanpo dagoen faktore bat da, baina zuzenean eragiten diguna. Horregatik, instituzioei industrialetara joateko garraioa eskatuko nieke. Eskualdean badaukagu arazo hori.

X.U.L.: Hain zuzen, horregatik da garrantzitsua atentzio pertsonalizatu hori, ez daukagulako pertsona guztiak industriaguneetara helduko direla bermatuko duen garraio publikorik. Eta lokalizatzen dugu, adibidez, praktikaldia egingo duen leku horretan bere herriko bateren bat eta haren ordutegira egokitu.

Zaindari papera ere badaukazue, hortaz.

GORETTI ASTIGARRAGA ARGOITIA: Hala da, eta al-

daketa hori etorri da, gainera, moduluen plangintzan. Iaz etorri zen aldaketa hori elektrizitate moduluagaz eta aurten beste eskaintzekin. Eta foko desberdinetatik etorri zaigu eskaera. Elektrizitatearena Eusko Jaurlaritzak proposatu zigun. Ostera, soldadurarako geu eskaini gara. Iturri desberdinetatik jasotako plangintza da.

Zelan erakarri nahi dira gazteak jende falta dagoen leku horietara?

N.B.A.: Oso gaitza da. Izan ere, gaur egungo gazteen ikuspuntua aldatu egin da. Lehen lanpostu egonkorra pizgarria zen. Orain, ostera, norbere kontuko lanek ez dute erakartzen, nahiz eta gu ahalegintzen garen ekimen

sortzailea bultzatzen modulu guzti-tan; gainera, Leartibai Fundazioagaz elkarlanean proiektu enpresarial bat gauzatzeko aukeragaz. Baina ekintzaile-tza hori gure eskualdean eta beste eskualde batzuetan ere ez dago indartsu.

X.U.L.: Bai geure bidez, bai Eusko Jaurlaritzaren bidez, indar handia ematen zaio mezu horri. Etxeetan, ordea, beste mezu bat ematen zaie ikasleei. Eta hobesten dugu gazteak unibertsitate bideratzea, eta ez Lanbide Heziketara. Antzekoa gertatzen da emakumeak Lanbide Heziketara erakartzeko orduan ere, erakundeetatik eta ikastetxeetatik lan handia egiten den arren.

Hor dago irakaskuntza duala ere: zer bilatzen da horregaz?

G.A.A.: Dualagaz lortu nahi da ikasleek bai gelan





ikusten dutenagaz, bai enpresan ikasten dutenagaz, biekin, formakuntza eskuratzeara. Eta bolumen handiari buruz ari gara berbetan denentzat bialatu behar delako praktikarako lekua.

X.U.L.: laz 104 ikasle joan ziren praktiketara eredu guztiak kontatuta. Denak ez dira enpresan gelditzen, gaur egun normalena delako heziketa ziklo bat baino gehiago egitea. Bertan ibilitako ikasleek gero bertora jotzen dute laguntza eske beste nor edo nora mugitu nahi dutenean. Eta jendea oso pozik dago ematen dugun zerbitzu horrekin, badakitelako ikuspuntu hori, zaindari sen hori, daukagula.

G.A.A.: Izan ere, galdetzen dugunean ea zergatik etortzen diren bertora formakuntza jasotzera, askotan erantzuten dute daukagun laneratze zerbitzuarengatik dela.

N.B.A.: Gu horretan bereizten gara beste batzuegandik. Enpresekin daukagun harreman horiek daukagulako eskualdean ze eskualdetik kanpo.

Ze baliabide dauzka Lea Artibai ikastetxeak eskariari erantzuteko?

G.A.A.: Lau ziklo erdi mailakoak: beroa sortzeko instalazioak, instalazio elektriko eta automatikoak, mantentze-lan elektromekanikoa eta soldadura eta galdaragintza. Eta goi mailan: administrazioa eta finantzak, automatizazioa eta robotika industrialia, web aplikazioen garapena, fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa, elikagaien industriako prozesuak eta kalitatea, mekatronika industrialia eta energia eraginkortasuna eta eguzkia energia termikoa.

N.B.A.: Eta aurten martxan ipini dugun masterra, zibersegurtasuneko masterra eragiketa teknologikoen inguruetan: goi mailako robotika edo eta mekatronika egindako ikasleentzat. EAE mailan hiru zentrok daukagu hori emateko baimena, eta hiru-retako bat gara gu. Elikagaietan ere ez dago horrenbeste eskaintza EAEn. Bizkaian geuk eman ahal dugu bakarrik. Azken batean, oso ikastetxe teknikoak da: «laborala» modura da ezagutzen da oraindik, eta ez da kasualitatea, daukan ekipamenduari erreparatuta: TNT tornuak, robotak, mekanizatuko tailerrak, muntaketa tailerrak, hotza eta beroko instalazioko tailerrak, elikagaietako ekipamendua —oso atal indartsua—, ... Hortaz gain, hor daude azken urteetan ipini ditugun gela inmersiboak, gela interaktiboak eta simulagailuak

ere. Dirutza bideratzen da horrietara guztietara, urtero: iaz, adibidez, 500.000 euro bideratu ziren inbertsioetara, orain urte bi 1.000.000 euro eta orain hiru urte, 400.000. euro, batez ere makineria eguneratzen. Hori dena puntan egon eta beharizan guztiei



erantzun ahal izateko. Momentu honetan hori dena hiru eraikin bereiztutan dago.

Lanean daudenak ere formatzen dituzue.

N.B.A.: Etengabeko prestakuntza edo Lanerako Prestakuntza hiru talde nagusitan banatzen dugu: langabetuak, okupatuak [lanean daudenak, baina formakuntza hobetu nahi dutenentzat] eta eskarerraren araberakoak [demagun prebentzioaren inguruak, eskatzailearentzat beren-beregi diseinatuak]. Lehenengo biak Lanbide finantzatzeko aukera edukitzen dugu; eta azkena, enpresek zuzenean.

Eta irakasleok ere etengabeko formakuntzan zaudete.

X.U.L.: Tkgunea da horren adibide, Teknika erakundearen baitako egitasmoa [Lanbide Heziketako sailaren I+D zentroa]. Haren bidez ahalbidetzen dugu irakasleek enpresekin proiektu errealek egitea, helburua izanik irakasleak etengabe birziklatzea eta ikasten den horretatik klaseko edukietara gauza berritzaileak ekartzea.

N.B.A.: Akreditazio digitalak eskuratu dituzte Lea Artibai Ikastetxeko irakasleen %80 baino gehiagok.

Lea Artibai ikastetxea Leartibai Fundazioko kidea. Ze garrantzia dauka horrek?

N.B.A.: Guk sortu genuen, eta patronatuko kide izate jarraitzen dugu. Eskualdeko plan estrategikoa-ren diseinuan parte hartu genuen patronatuko kide modura eta ikastetxe modura. Horren baitan talentua sortu, erakarri eta mantentzeko beharri erantzun nahian gabilgiza, ikusten delako eskualdean pasatu ahal dela, daukagun kokapenagatik, bertokoak kanpora irtetea, eta nahiko genukeena da bertan eskualdean geratzea, bertoko enpresetan. Zer egin dezakegu hori horrela izan dadin? Lanpostu duin bat, eskaintza duin bat, eta oinordekotza bermatuko duen pertsonak bilatzeko jende eraginkorra. Geu gara atal horretan gidari.

Talentatu hor kokatzen da.

N.B.A.: Programak kooperatiben mahaitik irten zuen, eta gu ere horren parte gara, ze gu ere kooperatiba gara, eta guk ere nahi diegu ikasleei transmititu kooperatiba izateak zer onura ekar ditzakeen beste era bateko izaera juridiko bategatz alderatuta. Gure ikasle izandako batek aholkua eskatzen badigu enpresa bat sortu nahi duela eta,

Urrats bat programaren bidez laguntzen diogu, eta Leartibai Fundazioagaz harremanetan jartzen dugu, batetik, jakin dezan ze diru laguntza eskatu ahal duen eta ze bideragarritasun eduki ahal duen, eta bestetik, lokala merkatuko prezioen aldean merkeago alokatzeko ematen dituen aukeren berri izan dezan.

Non hasten da eta non bukatzen da Lea Artibai ikastetxearen eginkizuna?

G.A.A.: DBHko ikastetxeetara eta oinarritzko LH ikastetxeetara joaten gara eta geure eskaintza erakutsi, eta geure orientatzaileak beste ikastetxeetakoekin harremanetan jartzen ditugu. Gainera, ikasle ohiak ekartzen ditugu ikasleek haien lekukotzak entzun ditzaten. Eta ikasturte barruan hainbeste ekintza egiten ditugu eleaniztasunagaz edo inklusioagaz lotutakoak.

X.U.L.: Gure ikastetxea egunero dago zabalik 08:00etatik 20:00etara klaseak ematen. Garrantzitsua da jakitea baliabide publikoen bidez martxan dagoen gauza bati etekina ateratzen zaiola. Eta hori ez dakit ikastetxe askok esan ahal izango luke ten.

N.B.A.: Eta gure pasilloak horren adierazle dira. Batxilergoko, zikloetako eta Etengabeko prestakuntzako ikasleak batzen direnean, ekosistema bat sortzen da adin eta herrialde ezberdinetakoekin. Oso anitza da.

DATU ESANGURATSUAK

Lea Artibai Ikastetxea 1957an sortutako goi mailako hezkuntza zentroa da, Markina-Xemeinen kokatua eta kooperatiba izaerakoa. Bere inguruneko garapen-eragile iraunkorra izatea du misio. Horretarako, kalitatean oinarritutako laneko prestakuntza eta trebakuntza, orientazioa eta laneratzea eta enpresa-sareari prestakuntza zerbitzu integrala ematen dihardu etengabe.

Azken hamar urteetan, 18.000 ikasle baino gehiago pasatu dira Lea Artibai Ikastetxeko instalazioetatik; batxilergoa, lanbide heziketa zein lanerako prestakuntzan trebatu direnak. Gainera, urtero hainbat ikaslek lanpostua eskuratzen dute ikastetxearen laneratze zerbitzuren bitartez. Etengabeko prestakuntzan klase ordu ugari ematen dira, 9.000 eta 12.000 ordu bitartean. Bolumen aldetik lanerako prestakuntzan edo etengabeko prestakuntzan EAeko 3. da.



lea artibai
ikastetxea

Herritarrek duintasunez bizitzeko apustua



GAUR EGUNGO TURISMO EREDU MASIFIKATUTIK ALDENDU NAHI DU LEKEITIOKO UDALAK, ETA EKONOMIA IKUSPEGI INTEGRAL BATETIK JORRATU. EPE LABURRERA, EREDU JASANGARRIAGORANTZ JOTZEA DU XEDE, ETA HORRETARAKO LEHENENGO URRATSAK EMAN DITU.

«Udalak bere ekinbidea bi hanken gainean egiten du: herritarrak duintasunez bizitzea herrian eta herri nortasuna zaintzea. Biak elkarri lotuta ulertu behar dira». Horixe da udalaren apustua. Horrek zer esan nahi duen azaldu dute. «Herrian duintasunez eta nortasunez bizitzeak esan nahi du herritarrek arlo sozial, ekonomiko eta kulturalak bermatuta edukitzea, alegia, herrian edo hurbil lan duin bat izatea, etxebizitza eskuratzeko eskubidea bermatua egotea, oinarritzko zerbitzuak edukitzea, euskaraz bizitzea eta herri kultura zaintzea».

Egungo turismo eredu masifikatutik aldenduz

Abiapuntua ulertu behar da udalaren esanetan. «Lekeitio aspalditik da herri turistikoa, eta azken urteetako erabaki politikoek are turistikoa egin dute. Eraldaketa horrek zuzenean eragiten du herritarren bizi kalitatean, baita herritaren nortasunean ere. Udalak, egungo turismo eredutik aldendu eta eredu jasangarriago batera bideratzeko helburua dauka», argitu dute.

Ikuspegi ekonomikoa kontuan izanda, «Lekeitio ikuspegi integral eta osatu batetik» begiratu behar dela diote. «Lehenengo eta bigarren sektoreak sendotu behar ditugu, eta hirugarren sektoreagaz oreka bilatu».

Bidea belaunaldi gazteen konpromisoagaz garatu nahi da, baina hori epe luzerako erronka dela eta, momentuko erreparatu nahi diete. «Epe laburrera daukagun egitekoa da daukagun turismoa jasangarri egitea». Horregaz lotuta dago NextGenerationEU Europatik datorren diru laguntza, Lea Ibarregaz partekatzen dutena. 1.000.000 euroko diru laguntza eskuratu dute, eta sei proiektu garatu nahi ditu udalak. Proiektuek turismo jasangarria dute oinarri eta herritarren beharrezkoak lehentasun.

a) **Aparkaleku sistema berria.** «Beharrezkoa ikusi genuen aparkaleku disuasorioak ipintzea. Horrek herritarrentzat baldintzak hobetzea dakar, eta, era berean, diru sarrera bat ere bada. Azken batean, kontuan hartu behar da herri turistikoa izateak herri bati askoz gehiago eskatzen diola; aparteko esfortzua: opor garaian garbitzaileak eta udaltzainak gehitu behar dira, Lekeitio bizilagun kopurua hirukoiztu egiten da eta. Gastu handiak eragiten dira». Udalean diote urteak joan urteak etorri herritarrek neurriak hartzea eskatzen zutela, eta aparkaleku sistema berriak eskaera hori bete du. «Herritarrak, komertzioak eta ostalariak, inguruko herritarrak eta udaldiko bisitariak izango dira sistema berriaren ardatza», argitu dute. Euren esanetan, bistakoa da turismoaren eragina aparkatzeko lekua bilatzeko orduan. «Udan aparkalekua aurkitzea oso zaila bihurtu da, batez ere herritarrentzat. Arazoa konpontzeko aparkaleku sistema berrantolatatu dugu hiru ardatzetan: herritarrak, komertzioak eta bisitariak eta udaldian egoten diren bizilagunak».

b) **Ontziola etxean zerbitzu berriak** hondartza sasoirako: sorosleak, komunak eta taberna.

c) **Eguzki plakak Trinkete Etxean.**

Aterpetxea eta igerilekua urte osoan daude martxan, «eta energia-konsumo handia dute». Proiektu horri esker, berriztagarria ez den energiaren

kontsumoa eta berotegi-gasen emisioa murriztuko da, «nabarmen».

d) **Garraitz irlan egonkortze lanak** martxan.

e) **GR38 ibilbidearen informazioa digitalizatu.**

Herrira datozen bisitariak eskualde osora zabalitzen lagunduko du, eta inguruko herri eta bazterrek ezagutarazten, abiapuntua Lekeitio izan arren.

f) **Eluntzetako burdibide historikoan konponketak.**

Neguan, hurbileko turismoa

Turismo jasagarriari begira, neguan bertoko turismoa erakarri nahi du udalak: «euskalduna edo hurbilekoa, gure nortasuna babesteko. Udan herria kanpotarrez gainezka dago, eta horrek herritarren bizi kalitatean eragin zuzena izateaz gain, gure hizkuntza eta kultura kaltetu egiten ditu». Neguan bizitasuna egon dadin bilatzen dute, baina publikoa euskalduna izanda. «Eztabaida hori merkataritzagaz, ostalaritzagaz eta merkatu plazagaz partekatu nahiko genuke».

ETXEBIZITZA TURISTIKOAK: ARAZOA KONPONTZEKO, HIRU PAUSO GEHIAGO

«Lekeitio etxebizitzaren egoera oso larria da. Urte osorako etxebizitza bat alokatzea ia ezinezkoa da, ez dagoelako urte osorako eskaintzarik», adierazi du udalak. Dio dauden etxe apurrak normalean prezio oso garestietan daudela. «Horrez gain, etxea erosi nahi izatekotan ere prezioak ikaragarriak dira. Hori horrela, edonork ez du Lekeitio etxebizitza bat eskuratzeko aukerarik, eta egoera horretan, gero eta pertsona gehiago inguruko herrietara joan behar dira bizitzera».

Errealitate horri beste fenomeno bat gehitu behar zaio udalaren esanetan. «Azken urteetako Etxebizitza Turistikoaren fenomeno Le-

keitio ere garrantzia hartzen hasita dago. Argi daukagu etxebizitza turistikoaren hedapena herrian arautu eta mugatu egin behar dela, berandu izan aurretik», diote. Udalak Etxebizitza Turistikoak arautu ahal izateko, HA-POan [Hiri Antolamendurako Plan Orokorra] aldaketa puntuala egin behar du. «Era berean, lanean jarraituko dugu Eusko Jaurlaritzak Lekeitio eremu tentsionatuen zerrendan sartu eta era horretara etxebizitzaren egoera erregulatzeko eskumen gehiago eskuratzeko. Azkenik, herriko etxebizitza egoera ondo ezagutzeko diagnostiko sakon bat egiten ari gara, eta laster ezagutaraziko dira emaitzak», aurreratu dute.

Maderasen garrantzia

Maderas de Lekeitio erosita, Lekeitio lur eremu hori berreskuratzea lortu du, Antzoriz-Eluntzeta bezala ezagutzen den gunea hain zuzen. Udalak bertan behera zeuden negoziazioak berrartu eta akordioa lortu zuen lurren ugazabagaz, La Caixagaz.

Administrazioak testuingurua gogorarazi du. «Lekeitioentzat benetan garrantzitsua zen lur horiek berreskuratzea, eta zorionez hori lortu da. Kontuan hartu behar da Lekeitio Bizkaiko bigarren herri txikiena dela, eta ez daukala lur eremurik. Beraz, argi geneukan herriak hau berreskuratzea behar zuela».

Maderasen zer egin erabakitzen

«Maderasen etorkizunari buruz erabakitzean kontuan izan behar da eremu hori arautzen duten legeek zer dioten; batez ere, Lekeitio eta Ispasterko planeamenduei lotutakoak —bateragarritasun plana eskatzen du horrek. Prozedura urteetako da, eta horren aurretik erabilera plana egin behar da— eta Kostako Legeari edo ingurumenari lotutakoak», dio udalak.

Baina legeak esaten duenaz gain, herriaren beharrezkoak, erronkak eta nahiak eta 21. mendeari begirako desafioak ere kontuan hartu nahi ditu. «Legeak ez du uzten ez industriarik ez etxebizitzarik eraikitzen. Hor sortuko dena interes kolektiborako izan behar da», azaldu dute. Bestalde, herritarren nahia herri prozesuko ekarpenetan islatu zenez, 21. mendeko erronkekin koherenteak direnak bereizi dituzte, eta enpresa espezializatu baten laguntzagaz horiek sakonduko dituzte, arauak ematen duten aukeren barne.

Hori dena kontuan hartuta, ondorio hauek ateratu dituzte:

1. «Ingurumen krisiaren aurrean, ezinbesteko apustu estrategikoa da Lekeitioentzat energia burujabetzan pausok ematea. Horregatik, energia berriztagarriak sortzeagaz lotutako proiektuak martxan ipini behar dira. Horrez gain, udal eraikin guztietan eguzki plakak jarriko dira, kontsumo publiko guztia energia berriztagarriekin egiteko.
2. Lekeitio lanpostuak izateko aukerarik ia ez dagoela eta, Maderasen lanpostuak sortzeko aukerak aztertuko dira. Landa Garapenagaz batera Le-

keitio Nekazal Haztegia egiteko azterketa lanean dabil udala. Horregaz, lehenengo sektoreari bultzada bat eman nahi zaio, eta lan egin nahi dutenei erraztasun guztiak eskaini.

3. Maderasen dagoen gune berdea dagoen moduan mantendu eta jagon behar da. Gaur egungo ingurumen krisiaren aurrean, arduratsuak izan nahi badugu, gune berdeak zaindu behar ditugu. Aipatutako hiru puntuez gain, baina beste lehentasun maila bategaz, Antzoriz-Eluntzeta gunean aisialdiari begira zer eskaintza egin daitekeen ere pentsatu beharrekoa da.

Dena dela, legeen mugen gainean arreta jarri nahi dugu. Legeek asko mugatzen dute Antzoriz-Eluntzeta eremuan egin daitekeena. Legearen arabera itsasotik hurbilen dagoen eremu horretan gauza gutxi egin daiteke. Izan ere, Kostako legeak dio dagoen moduan mantendu behar dela, aldaketa gutxi eginda.

Nolanahi ere, udalaren asmoa da planteamendu oso bat egitea herri nahiak eta legearen aukerak kontuan hartuta. Behin kontraste hori egindakoan, herritarrengana eramango da Maderasen gaia denon artean Antzoriz-Eluntzeta eremu horretan zer egin erabakitzeko. Hau da, datorren ikasturtean aukera izango dugu modu ireki eta parte-hartzailean, guztion artean Maderasen zer egin erabakitzeko. Baina azpimarratu nahi dugu hau prozesu luzea izango dela, urteetakoak».



*Sortuko dena
interes kolektiborako
izango da.*



LEKEITIO
geure
nortasunetik

LEKEITIOKO UDALA
www.lekeitio.com



Enpresa txikiak, herriko aktibitatearen pizgarri



GALARTZA INDUSTRIALDEA ESKUALDEKO JARDUERA EKONOMIKOARAEN MOTOR GARRANTZITSUENETAKOA DA. HAREN BAITAN, ENPRESA HANDIAK ETA TXIKIAK ELKARREGAZ BIZI DIRA. HAIN ZUZEN, TXIKIAK HERRIKO AKTIBITATEAREN ADIERAZLE DIRA UDALAREN USTEZ.

Enpresa handien aldamenean, txikiagoek leku esanguratsua betetzen dute Etxebarriko industrialdean, eta haien eragina ez da mugatzen herrira. Horren adibide da Julen Etxabe Odriozola igeriltseri etxebarritarra. Urte erdi da pabiloian kokatu eta enpresa martxan jarri zuenetik, eta jaitoerrian bertan ezeze, inguruotan ere gogor dihardu lanean.

Aita eta aitona eraikitzaileak zituen, eta aitona igeltseroa, bera bezala. Hortaz, eraikuntza mundua ez zaió berria, nahiz eta 27 urte besterik ez izan. «Etxean ikusitakoa gustatu, eta formakuntza bide horretatik egin dut», adierazi du.

Pabiloia berri ere zabalik

Aitaren babesagaz dihardu Etxabek, harena zen pabiloian. «Aurretik base-rian bertan zeuzkan erreminta guztiak gure aitak, eta gero pabiloia eskuratu zuen. Aitak utzi ostean, hamar bat urte zarratuta egon da, eta oraintxe zabaldu dut berriro». Denbora tarte horretan, lanik ez zaió falta izan. Beste igeltsero bat egaz elkarlanean, han eta hemen sortzen zaizkien betekizunei erantzuten diete, eta aldi berean beste gremio batzuekin koordinatzen dira. «Elkar babestu eta lagundu behar dugu», adierazi du.

Harrezkero, eskaerak barra-barra etorri dira. «Oraingoz egoera hauxe da: lan bat egitera joan, eta beste hainbat ateratzen zaizkizu, lanean ikusi orduko zerbitzu eske etortzen zaizkizu eta». Nolanahi ere, gauza bakoitzerako behar den denborak bestea egiteko behar dena zapaldu ohi du. Horrela, dio ezin erantzunda ibiltzen direla jendeak zerbitzua momentu berean eskatu ohi duelako. «Aurrekontuak egin eta egin ibiltzen gara, eta denbora luzean erantzun gabe egon ostean, bat-batean, denek erantzuten dute, baina ezin dugu denentzat aldi berean lan egin». Izan ere, gremioetako langileen gabeziaren lekuko zuzenak dira. «Jendeak ez du gremioetan lan egin nahi», dio etxebarritarrek.



2.500
lanpostu inguru
eragiten ditu
industriaguneak.



Ezenarro aroztegia

Galartzako beste enpresa txiki eta aldi berean esanguratsu bat Ezenarro aroztegia da. Gorka Ezenarro Arratek gidatzen duen enpresak Markina-Xemeinen dauzka sustraiak. Hantxe zabaldu zuen aspaldi haren aitak tailerra beste bi arotzegaz batera, eta denda ireki 1997an. Handik hiru urtera, Etxebarriko industrialdera pasatu ziren. «Geu izan ginen inguruotan amaitutako produktuak sartzen lehenak, hain zuzen, PVCzko eta aluminiozko produktuak, ze ikusten genuen egurrak bide motza zeukala, jendeak funtzionaltasuna bilatzen zuelako», adierazi du Ezenarrok.

Edozelan ere, beharrezkoa ikusten zuten tailer bat edukitzea. «Gauza batzuk ez zeuden merkatuan, eta bezero batzuek gauza bereziak eskatzen zizuten. Norberak fabrikatu ezean gauza berezi horiek lortzea gero eta gaitzagoa zela ikusirik, tailerra horrutz bideratu genuen, hau da, lan berezietara gehienbat. Eta horietxek egiten ditugu, batez ere: lan bereziak; modelu jakin batzuetatik irriteten direnak», argitu du.

Industriaren aldeko apustua

Ezenarrok datu bat eman du Galartzako poligonoaren esanguraz jabetzeko. «Etxebarriak 1.000 bizilagun baino gutxiago dauzka, eta, aldiz, 2.500 lanpostu inguru eragiten ditu bere industriaguneak».

Emaiza hori egiteko modu baten ondorioa da berak dioenez, herriaren orografiak lagunduta neurri batean. «Etxebarriaren apustua industria izan da. Horretan zerikusia izan du herriaren kartografiak, laua delako, eta udala ahalegindu da erraztasunak ematen, garrantzia eman diolako industrialdea indartzeari. Beraz, guri geuri dagokigunez, Markina-Xemeinen baino aukera gehiago ikusten genituen gure jarduera garatzeko».

Enpresa txikien beharrianak

Enpresa txikien aukera eta oztopoez dihardu Ezenarrok. «Lana egon badago, ze gero eta gutxiago gara. Baina zerbaitengatik gara gutxiago: guretzat gero eta zailagoa delako lan egitea. Alde batetik, gero eta eragozpen gehiago jartzen dizkigute: burokrasia asko dago; enpresa txikiok in handiekin modura jokatzeko; eta enpresa txikiok ez daukagu baliabiderik eskatzen zaigun guztiari erantzuteko; eta bestetik, irabazi marjinak txikitu egin dira. Atera kontuak: eraikuntzako krisitik hona, pisuek orduango balioaren bikoitza balio dute; hala eta ere, horregatik gu ez gara aberatsago: aberastasuna beste non edo non geratzen da. Izan ere, hain daude hainbeste bitartekaril».

Ezenarro aroztegiak erdi mailako lanetan dauzka irabaziak. «Hortxe konpontzen gara gu», dio. Eremu geografikoari erreparatuta, Lea-Artibai eta Durangaldea dute lan esparru nagusi. «30 kilometro barruan, noiz edo noiz adibidez Iruñean eta Donostian ere lan egin izan badugu ere».

Etorkizuna ez du garbi ikusten. «Epe luzera dena garestitu egingo da, eta hori gutxi ez, eta ez da egongo norik egin». Eta urteazkoak ikusten du administrazioek enpresa txikien zama arintzeko neurriak hartzea. «Enpresa txikiei karga fiskalak jaitsi beharko litzaizkieke».

Ezenarro aroztegiaren etxean, ez da egongo lekuko aldaketarik. Eta dio: «Erreleboa ofizio guztietan faltako da. Eta erreleboa galduta, gizarteak eza-gutza galduko du. Eta galtzen dena ez da berreskuratzen».



**ETXEBARRIKO
UDALA**

www.etxebarria.biz



Egindako lanaren fruitua jasotzeko ordua

KONBENTUKO PROIEKTUA ETA EKOSISTEMA KOMERTZIALA BULTZATZEKO MARTXAN JARRITAKO DINAMIKAK DIRA UDALAK HERRIKO EKONOMIA INDARTZEKO HARTUTAKO BIDE ESANGURATSUENETAKOAK, BAINA EZ BAKARRAK

Mutrikuko Udalak herriko ekonomia sustatzea helburu duten hainbat erronka dauzka esku artean. «Udaleko garapen saila oso dinamikoa da. Proiektu asko ari da garatzen, eta, hainbat urtetako laketaren ondoren, fruituak jasotzen hasi da. Azken urteetan parte-hartze prozesu ezberdinak egin dira, eta 2024-2026 urteen artean, prozesu horietatik eratorritako hainbat proiektu estrategiko gauzatuko dira» adierazi dute.

Santa Katalina konbentuko proiektua

Proiektu hau da urteetako lanketa horren erakusle. Datozen urteetan, Nautilus Mutrikuko Ikasgune Geologikoa Santa Katalina Konbentuan kokatuko da; kokapen egokiago eta handiagoan, fosil bilduma guztia espazio berea bateratuko da eta zerbitzu hobea eskainiko du. Horrez gain, herriko itsas historia eta ondarearen inguruko erakusketa ere egokituko da bertan. Era berean, behin-behineko erakusketak antolatuzeko gune bat ere egongo da. Zerbitzua era integrarean jasota gera dadin, turismo bulegoa bertara lekualdatuko da, hain zuzen, sarrerara. Era horretara, museoko sarrerak harriera gunetik zuzenean banatuko dituzte. «Helburua herrian dugun turismo eskaintza hobetu, erakargarriagoa bilakatu eta herriko errekurtsoak era eraginkorrean erabiltzea da», adierazi dute udalean. Aurrerago, eraikuntzaren lehen solairuan, Udal Liburutegi berria egingo da, 2015eko herritarren parte-hartze prozesuan jaso zen beharri erantzunez.

Ekimen hau Geoparkeko Turismo Jasangarritasun Planaren lan lerroetako bat da. Lehen fasea laster lizitatuko da eta 4.359.236,13 € kostua izango du. Finantzaketarako, Europar Batasunaren Susperitze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren baitan, Europako NextGenerationEU diru laguntzen bidez ia %50 finantzatzea lortu da.

Merkatu plaza eta ekosistema komertziala

Merkatu plaza eta Mutrikuko hirigune historikoaren ekosistema komertziala biziberritzea udalaren kezka izan da. Horri lotuta, proiektu bat martxan jarri da bertoko merkataritza sustatzera bideratua eta merkatu plazan indargune berezia eginda.

Proiektuak 1.327.000€ko kostua izango du. Horietatik 790.456.00€ [%60] Europar Batasunak finantzatu ditu, Susperitze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan –NextGenerationEU–. Udalak gogorazi du merkataritza sustatzeko herriko plan berezi guztietan merkatu plazaren garrantzia azpimarratu izan dela. «Alde zaharren erdi-erdian, hirigune historikoaren kale garrantzitsuenen bidegurutzetan, toki aproposa da bertako produktuak sustatu eta baserritarrei euren produktuak saltzeko aukera emateko. Era berean, leku estalia da, eta 2021eko parte-hartze prozesuan herritarrek babeserako ere erabiltzeko modua egon behar litzatekeela nabarmendu zuten», esan dute.

Horrenbestez, merkatu plaza guztia eraberritu dute: goiko plazatik zetozen itoginak konpondu, barruko espazio guztiak birmoldatu eta espazioa

Mutriku Market salmenta sistema berriak, komunikazio zuzenean oinarrituta, herrian erostea sustatuko du

energetikoki era egokian isolatu da. Sei postu finko ipini dituzte, denak neurri berekoak (22 metro koadro). «Bi oraindik libre daude, eta deia egiten dugu bateren batek interesa edukiko balu udalarekin harremanetan jartzeko». Era berean, gradak jarri dira euria egiten duenean jendea bertan egon dadin.

Gune bat 24 orduz irekita egongo da eta, bertan, poltsa organikoak jaotzeko makina, komun publiko bat eta hozteko armairuak egongo dira, jendeak herriko merkatariei zein baserritarrei produktuak erosi eta bertan jasotzeko aukera eduki dezan.

Bide hauek ere martxan dauzka udalak:



Markeplace berria herriko establezimenduentzat: Udalak martxan jarriko du Mutriku Market izeneko markeplace berria, whatsapp bidezko salmenta ahalbideratuz. «Herriko merkataritzak ageriko indargune bat dauka: elkar ezagutza da eta komunikatzeko erraztasuna.

Hori, adibidez, Amazonekin ez daukagu. Sistema horrekin hori indartu nahi izan da: alegia, komunikazio zuzena sustatu, eta konfiantzazko gune batean, era errazean, erosteko aukera eman herritarrei», adierazi dute. Proiektua urte amaierarako martxan egongo da.

Merkatarientzako formakuntza: Enpresek egiten duten sare sozialen erabilera aztertu ostean, formakuntza ematen ari gara, eta horrek salmentak sustatu eta sare sozialetan establezimenduen presentzia indartzeko balioko du.

Merkataritza gida: Jendearentzako merkataritza gida ere garatzen ari da, non zerbitzu guztiak azalduko diren.

Bi totem jarriko dira: bat, herriko informazioarekin, eta bestea udalaren ordu-tegitik kanpo harekin egin beharreko izapideetarako.

Promozio kanpaina: bertako produktuen kalitatea nabarmendu eta bizilagunak bertokoa kontsumitzera animatu nahi dituzte.

Seinaletika ipiniko da hirigune historikoa eta alde komertziala indartuaz.

Akuakultura

Mutrikuko Udalak Akuakulturaren aldeko apustua egin du aspalditik; estrategikotzat jotzen da, herrian, itsasoaren inguruan garapen ekonomiko jasangarria bideratzeko.

Akuakultura Mutrikun uztartzeko helburuz, 2025ean udala eskola atzeko lur magala egonkortzera konprometitu da, ezinbesteko urratsa Eusko Jaurlaritza eskola berritzen hasi dadin.

Bestalde, Mutrikuko Udalak, herriko industriagunearen mantenua eta bideragarritasuna zaindu nahi ditu. Hori dela eta, 2025ean Mijoa industrialdea asfaltatu egingo da, hango erabiltzaileak asfaltoaren egoeraz kexatu ostean.

Herriko ekonomia pizteko etengabe lanean

Udalak hainbat ekintza bideratzen ditu, ekintzaile sena sustatuaz lanpostuak sortu eta herriko ekonomian eragiteko asmoz.

Era horretara, udalera etortzen diren ekintzaileei ahalik eta zerbitzu egokiena eskaintzea da helburua eta, besteak beste, enpresa proiektua edo bideragarritasun plana egiten laguntzen zaie Debegesa Garapen Agentziaren bidez. «Horrez gain, ekintzaileei diru laguntzen inguruko informazioa bideratzen diegu. Gainera, udalak berak diru laguntza lerro bat dauka: **Mutrikulan**. Aurtengo deialdia urriaren 14an argitaratu da eta urte barruan sortu diren enpresentzat izaten da, bai inbertsio-erarako, bai sortzen diren lanpostu-erarako», azaldu dute. 2013-2023 urteen bitartean, 45 enpresa berri sortzen lagundu du udalak eta 171.716,40 € bideratu ditu horretara Mutrikulan diru laguntzaren bidez. Sortutako enpresen superbibentzia tasa %74koa da. Ekintzaileetza sustatzen jarraitzeko helburuarekin, 2023an espazio berri bat egokitu du udalak:

Mutriku Loratu bono kanpainak

Udalean merkataritza eta ostalaritza laguntzeko hainbat ekintza egiten dira. Esate baterako, Mutriku Loratu izenarekin, urtean bi bono kanpaina egiten dira, udaberrikoa eta udazkenekoa. Udalak 1.200 txartel jartzen ditu salgai. Txartelak 35€tan erosten dira, baina, ondoren, 50€ko erosketak egin daitezke parte hartzen duten establezimenduetan. «Horrekin lortzen da aste gutxiren barruan merkataritzak 60.000 euroko mugimendua edukitzea kanpaina bakoitzeko eta herriko familiak 18.000€rekin diruz laguntzea.

Garai baxuetan batez ere oso ekimen dinamizatzailea da. Badago esfortzu bat udalaren aldetik, baina baita merkatarien alde-tik ere, haiek dirua aurreratu behar izaten dutelako».

Puntu horretan, udalak gogorazti du oso harreman indartsua daukala herriko eragile ekonomiko ezberdinekin, hala nola, Bertan Merkataritza elkartearekin, MUBAE baseritarren elkartearekin edo herriko ekoizleekin. «Uste dugu harreman hori mantendu eta indartu egin behar dela, eta hainbat dinamika bideratzen dira lankidetzara hori indartzera», azaldu dute. Adibidez, badira hainbat urte, hilean behin, **Merkatu Txikia** antolatzen dela, herriko produktuak bultzatu eta herriko ekoizleak ezagutzera emateko. «Helburua da bertan parte hartzen dutenei salmentara puntu on bat eskaintzea eta herritarrek kalitatezko eta gertuko produktuak eskuratzeko aukera edukitzea».

Turismo jasangarriaren bidetik

Garapen saila turismo bulegotik eramaten da. Mutriku dituen baliabideak aintzat hartuta, turismoa garapen jasangarri baten oinarri izateko bideratzen dira indarrak udaletik.

Mutrikuk azken urteetan turismoari loturiko loraldia bizi du. Leku erakargarria da eta gero eta bisitari gehiagok herri honek duen kalitatezko alojamendu zein gastronomia eskaintzaz gozatuzen du.

2010 urteaz geroztik, Mutriku Euskal Kostaldeko Geoparkean kokatzen da Deba eta Zumaiarekin batera.

Jomuga honetara datorrenak ezaugarri bereziak dituen lurralde batera datorrela jakin behar du: kontserbazioa eta ezagutza balioan jartzen diren gune batera, alegia.

Mutrikura datorren bisitariak jakin behar du gune historiko batean dagoela, ikusten duen paisaia orain dela miloika urte sortu zela eta, oraindik ere, duela 100 miloi urteko fosil erraldoiak aurkitzen direla kostaldeko labar ikusgarrietan.

Bisitariak leku hau altxor txiki bat dela ulertzea nahi genuke, euren bisitak ingurumenean inpak-turik ez sortzeko.

Bestalde, Turismo bulegoaren bidez, bisitari hauek herrian sortzen duten eragin ekonomiko ahalik eta handiena izaten saiatzen da udala, ditugun esbalezimenduen eskaintza gertutik ezagutu eta bisitariari herrian egun gehiago igaro ditzan dauden baliabide ezberdinei buruzko informazioa emanaz.

Geoparkearen bidez Ekoturismo klubaren barruan lan egiten du udalak, garapen ekonomiko jasangarri batera bideratuz dinamika guztiak.



ARKU GAIN COWORKING GUNEA. 5 lanpostu egokitu dira Mutrikuko portuan kokatzen den Arku Gain eraikuntzan. Batzuk oraindik libre daude, beraz, interesa duenak eska dezala informazioa Mutrikuko Turismo Bulegoan. Hartzen dutenei udalak lantoki bat bermatzen die, wifi loturarekin eta erabilera partekatua duten beste espazioekin, hala nola, bilera gela, hiru urte egoteko aukerarekin. «Bertan daudenen artean kolaborazioak eta sinergiak lortzea da ideia», diote.

Enpresa proiektuentzat modura, garapen ekonomikoarekin lotura duten elkarteentzako ere badaude diru laguntzak **Mutriku garatuz** programaren baitan.

HERRIARI BURUZKO JAKINGARRIAK

- ▶ 5.302 biztanle.
- ▶ Langabezia tasa %6,6.
- ▶ Zerbitzu sektoreak herriko lanpostuen %61 sortzen du. Industriak %30.
- ▶ Langileen portzentai handi batek herritik atera behar izaten du lanera joateko.
- ▶ Udalak herrian lanpostu gehiago sortzea nahiko luke eta horretarako dinamikak bultzatzen ditu.



www.mutriku.eus




INIGO ARRIETA GONZALEZ

| EIKAKO KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA

«KOOPERATIBAGINTZA DA FORMULARIK EGOKIENA GIZARTE JUSTU BATERAKO»

2003. urtean, Leartibai Fundazioaren laguntzagaz eta taldearen dinamizazio-lana bere gain hartuta, Lea-Artibaiko Kooperatiben Mahaia sortu zen, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ekonomia Sailak kooperatiba berriak sustatzeko sortutako ekimenari erantzuna emanez eta, ondorioz, Lea-Artibai eskualdean eta inguruko beste hiru eskualdeetan eraginez —Busturialdea, Debabarrena eta Durangaldea—. 2008. urtean, lan-mahai hau elkarte gisa eratu zen.

Kooperatiben Mahaia Elkartearen helburu nagusia kooperatiba berriak sustatzea izan bada ere, 2017 urtean beste urrats bat ematea erabaki zuen elkarteak eskualdeko eraldaketa sozialerako proiektuak elkarlanean garatzeko helburuagaz, eta Talentatu izeneko egitasmoa definitu zen. Eta aurten, hirugarren lan-ildo bati forma ematen ari da mahaia, beti ere Lea-Artibai eskualdea eta bere ingurune hurbilean eraldaketa sozialean eragin eta garapen ekonomikoa bultzatu aldera.

Nola eta zergatik sortu zen kooperatiben mahaia?

Kooperatiben Mahaia Azaro Fundazioak (orain, Leartibai Fundazioa) bultzatuta sortu zen, kooperatibek foro bat eduki zezaten eskualdeko garapen ekonomikoari begira ideiak partekatu eta bultzatzeko, kooperatibagintzako baloreak sustatzeko eta enpresa proiektu kooperatibo berriei bultzada emateko. Hain zuzen, 2003az geroztik gizarte ekonomiako 65 enpresa berri sortzen lagundu dugu lau eskualdeetan Leartibai Fundazio-

arekin lankidetzan, 40 kooperatiba berrik jaso dute mahaiaren babes eta 404.500€ banatu ditugu laguntzetan. Mahaia zazpi kooperatibek osatzen dugu: Burdinola, Cikautxo, Eika, Fagor Arrasate, Kide, Laboral Kutxa eta Maier [Busturialdekoa]. Gaur egun, egitasmoa Leartibai Fundazioaren baitan garatzen da.

Kooperatiba berrien sorreran laguntzen duzue. Zergatik da zuen ustez kooperatibagintza formularik egokiena enpresa bat sortzeko orduan?

Pentsatzen dugu gizarte justuagoa, solidarioagoa eta kooperatiboagoa egiteko, kooperatiba eredu juridikoa dela egokiena. Eta helburu horregaz, gizarteari geure ekarpena egiten diogu; gizartea eraldatzen saiatzen gara.

Ze pisu dauka kooperatibagintzak eskualde mailan?

Oso presentzia esanguratsua dauka, eskualdeko biztanle aktiboaren hein handi batek mahaiko kooperatibaren batean lan egiten duelako. Horrez gain, oso pozik gaude, bai kooperatiba berriak sortzen lagundu dugulako, bai azken urteetan, eraldaketa soziala oinarritzat hartuz, hainbat ekimen martxan jartzen ari garelako. Horietatik esanguratsuenak, Talentatu.

Zer bilatzen da Talentatugaz?

Bere garaian antzeman genuen bertoko biztanle asko kanpora zihoazela lanera. Beraz, Talentatu programagaz talentua sortu eta erakarri nahi dugu. Horretarako, Lea-Artibaiko hamazazpi ikastetxe eta 2.000 ikasleekin eta Busturialdeko hamar ikastetxe eta 1.386 ikasleekin ari gara lanean. Etorkizunean eskualdean lan egiteko aukera onak dauzkatela esaten diegu, eta horretarako beharko lituzketen ikasketak azaldu eta STEM [zientzia, teknologia, ingeniari eta matematika] ezagutza eta lanbideak ikasleengan hurbiltzeko ekintza ezberdinak garatzen ditugu, Leartibai Fundazioko teknikariek batera. Talentarekin eskualdean STEM talentua sortu, erakarri eta mantentzea bilatzen da. Eskualdetik kanpo gero eta gehiago entzuten da gure eskualdea Talentatu programa dela eta.

Zeintzuk izan dira horretarako giltzarriak?

Azken bost urteetan hainbat faktore batu dira: batetik, Leartibai Fundazioaren figura dago. Bere presentzia nabarmentzekoa da, bera ari baita gaia trazionatzen eskualdea garatzeko. Bigarrenik, Kooperatiben Mahaiko ki-deak daude. Horiek erabateko prestutasuna agertu dute amankomunean ekinbideak martxan jartzeko. Eta hirugarrena Talentatu proiektuan ikusten ari garen inplikazioa aipagarria da: bai ikastetxeen aldetik, baita kooperatibetako bazkideen partetik ere.

Ze pisu dauka euskarak zuenean?

Euskara mahai gainean dago. Euskaraz lan egin nahi dugu, gizartean erdararako dagoen joerari aurre eginez. Lehen eskualdeko kooperatibok bage-neukan euskara batzorde bat. Gaur egun, gaia Mondragon Kooperatiba mailan ari da lantzen, baina guk gure mahaiaren ere indarra jartzen dugu kontu horretan, hainbat ekintzen bidez euskara mantentzeko eta hauspotzeko.



Leartiker

MEMBER OF BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE



#PertsonentzakoTeknologia



OSASUNA

Polimeroen Teknologia




GARRAIO
JASANGARRIA

Teknologia



ESNEKI
ZENTROA

Elikagaien Teknologia



ELIKAGAIEN
DISEINUA


Teknologia



www.leartiker.com

MARKINA-XEMEIN





TOKIKO HEDABIDEA TOKIKO KONTSUMOA BULTZATZEN

HITZAk bertoko merkataritza eta zerbitzuak
bultzatzeko asmoagaz sortu du:

ZERBITZU GIDA

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU



http://labur.eus/LeaArtMut_ZerbitzuGida

Bilatzen zabiltzan zerbitzu edo enpresa hori aurki dezakezu
edo negozioa daukazu horrek zeure burua iragarri zenezake.
Eskaneatu goiko QRa edo sartu azpiko helbidean eta **esploratu bertoko komertzioak!**

LEA-ARTIBAI,
MUTRIKU ETA
BUSTURIALDEA

HITZA